

150 hitz zuten, gehienez, kontzentrazio-esparruetatik idatz zezaketen presoek, komunikatzeko. Hirurogei hitzetan esateko, adieraziko nuke sorkuntza eta idazketa prozesuan haurtzaroko bizipenak eta tokiek duten garrantziaz jabetzeko interesgarria gertatu zaidala lan hau idaztea; eta bide batez, sorkuntzan, amatasunak aurrena eta horrekin eme birjaiotzeak, Botticeliren venus bezala, eragin duen bilakaeraz aritu naizela, ahazten ikasiz senari adi jartzeaz. Eta horrela, iritsi naiz, azkenean, hirurogeigarren hitzera.

Giltza-Hitzak: Jaiotza. Oroitzapena. Sena. Sinetsi. Ahaztu. Etxe eta etxekoneko. Idazkera. Amatasuna. Irakurri.

Los presos que escribían de los campos de concentración disponían como máximo de 150 palabras. Resumir en sesenta palabras resulta un ejercicio interesante para percibir la importancia de las vivencias y lugares de la infancia en mi proceso de creación-escritura. Da pie, además, al tema de la influencia de la maternidad, del renacer mujer, como Venus de Botticelli, lo que en la evolución de mi proceso creativo, supone aprender olvidar, prestando atención al instinto. Y he llegado a la sexagésima palabra.

Palabras Clave: Nacimiento. Recuerdo. Instinto. Creer. Olvidar. De casa y de la casa vecina. Escritura. Maternidad. Leer.

Les emprisonnés des camps de concentration qui écrivaient n'avaient droit qu'à un maximum de 150 mots. Le fait d'employer soixante mots s'avère être un exercice intéressant pour me rendre compte de l'importance des expériences et des endroits de l'enfance lors de mon processus de création-écriture. Et tant que j'y suis, je parle de l'influence de la maternité, la naissance de la femme, comme celle de Vénus de Boticelli, dans l'évolution de mon processus de création, en apprenant à oublier, en accordant de l'attention à l'instinct. Ainsi j'atteins les soixante mots.

Mots-Clés : Naissance. Souvenir. Instinct. Croire. Oublier. Maison et maison voisine. Écriture. Maternité. Lire.

# Izateko sortu

(Born to be)

**Irastortza, Tere**

Idazle Eskola. San Martin enparantza z/g. 20570 Bergara  
tirastortza@idazle.com

BIBLID [0212-7016 (2011), 56: 1; 108-147]

## **1. Jaiotzaz eta amatasunaz**

### **1.1. Jaiotze urtea eta lekua. Lehen oroitzapenak**

Zaldibin jaio nintzela 1961ean. Neuk ere ez dut gogoan, eta ez dut gogoratzen jaiocera, nahiz behin edo, eta ez aspaldi, osteopataren eskutan nire burua lagata neukala, lepo-gainean sentitu nuen, buruaren jirutzen-leun bateko instante batean, noizbait-noizbait, estuera batetik irten eta zerbaitek, argitasun batek nire begiei aurre hartua ziela.

Segundu laurden horretan, lipar horretantxe, zerbaiten zantzu bat sentitu nuen eta oso lasaigarria gainera, zeren eta beste batzuetan, begiak zabaldu eta sabairen zurtasunak itsutu eta nigargurea eragin izan baitit.

Norbere jaiotzaz, norbere heriotzaz baino gehiago ezin jakin dezakegun arren, gai hori interesatu izan zait aspaldian. Behar bada oso berandu egin nintzelako ama, ez dakit –eta axola ote du!– Baziren liburu bi, gazteleraz irakurriak, Otto Rank-enak, biziki inarrausi nindutenak (*El trauma del nacimiento* eta *El mito del nacimiento del héroe*). Irakurri nituen garaikoa da argitalpena, 1981ekoa, hogeitun urte nituenekoa.

Oso gogoan dut gainera liburu hura irakurrieran nola berrirakurtzen nuen mentalki A. Urretavizcayaren San Pedro bezpera ondokoak liburu hartako poema bat, harrez geroko guztian kupitu nauena “Ni jaio nintzenean / beste aldera begira zeuden...” zioena.

Ez dut nik, dakidala, horrelako sentipenik eta horretxegatik edo izugarri hunkitu nau beti poema horrek, ez bainaiz sekula “gutxi miaztutako katakume” sentitu eta ez eta ere gatxitxik utzitako bildots.

Inolaz ere nire jaiotzari buruz ditudan oroitzapen gehienak, gure ahizparenak dira, eta uste dut beti berak bizi izandako misterio eta harridura kutsu berberaz irudikatu izan dudala. Antza denez, ni jaiotzeko nintzela eta, anai-arrebak (lau eta bost urtekoak) guretik izebaren etxera eramanak ziren, noski ezer esan gabe, ziu-rrenera, ordu hartan, haurdunaldi kontuak ez baitziren nolnahi aireratzen. Hala bazen ez bazen, geure ahizpak uste du behintzat beraiek ezakinean zirela. Hain

ezakinean non izebak esan zienean itzultzeko etxera, han ahizpa txikia zutelako, erabat harrিতта galdetu omen zion bere buruari, nondik eta nola ote zekien hain garbi hori izebak, denbora guztian berarekin egona bazen.

Beraz, nire jaiotzari buruzko oroitzapena, zuzenean jaso dudana, ahizparena da. Eta ez dut uste galdera larregi egin izan dudarik gai honetaz.

Jaio osteko lehen oroitzapenez ere, bestalde, zer esan dezakegu? Irudiak ote dira? Sarri pentsatu izan dut oroitzapenak irudi edo film bezala gogoratzen direla, edota ahots gisara. Eta beti iruditu izan zait nire oroitzapenak oso berantiarak izango zirela.

M. Mauss-ek, berriz, argitzen du nola lehen oroitzapenek horiek hein batean induzituak diren, besteen oroitzapenekin, besteek kontatutako oroitzapenekin osatuak “halako eta halako hintzen”, “hau eta hori egiten hunan”. Eta memoria eta autobiografiak irakurtzean edo Bachelard-en *Ensoñación y memoria* harekin etorria naiz uste izatera badirela beste oroitzapen batzuk gorputzean itsatsita datozenak, eta halako batean, gorputzean ber-bizi daitezkeenak.

Eta hauetxetako batzuk baizik ez ditut idatzi ondorengo ataletan, saiatu naitzen arren horiek oroitzera zerk eraman nauen gogoratzen eta nola beste batzuen liburuetatik xurgatuz, ahazten ere ikasi behar izan dudan senarekin idazteko.

## 1.2. Haurgintza eta amatasuna

Eguberrietan, abere artean eta estalpe pobre batean jaio omen zen Jesus gores-teko, kantatzen genuen “Haurgintz arlotegorik ote zitekean, zer erakutsi zigun gogora gaitean”. Hori izan da gure tradizioan haurgintza errealerara gehien hurbil-tzen zen irudikapena. Neu, baina, geure etxean jaio nintzen, artean oso ohikoa omen zen eta. Eta amari laguntzen, nik dakidala, amaren lehengusu Joxepa.

Gainerakoan praktikantea ere han ibliko zen. Medikua ibili zen apenas daki-dan. Gauza hauetaz ez da erraz izan hitz egitea etxean, baina neu emakumetu naitzenez interes handia izan dut. Esate batera, non eta nola izaten zuten familia emakumeek Eta jakin nuen halako batean, bazirela haurgintza-aulkiak eta hori aitzakia hartuta idatzi nuen poema bat ere.

## 1.3. Glosak. Izan gabe direnak

Baina familia izzateko nire erabakian, bikote erabakiaz gain noski, funtsezko izan zen niretzat nire eskuetara iritsi zen liburu bat *Mon frère féminin* izenekoa, Marina Tsvietaievarena. Beste batzuei gertatu zaien bezala ez nintzen iritsiko berarengana Rilke zalea izan ez banintz, eta zaletasun horretan lagun batek 1926ko udan Rilke, Pasternak eta Tsvietaievaren arteko gutuneria argitaratuaren berri eman izan ez balit. Berehala, baina, Marina Tsvietaievaren irakurle leial eta arretatsu izatera iri-tsi naiz.

Hala ere, laurogeita hamarreko hamarkadan *Mon frère féminin* itzultzer jo nuenean, idazle hau ez zen oso ezaguna gure artean eta ez zen erraz bere berri jasotzea ohiko bideetara joz.



Arantzazu. Idazle Eskolako ikasleekin. 2006-2007 ikasturte amaierako ikasle eta irakasle batzuekin

XXI. mendera iritsi gara eta Tsvietaievaren lanak eta berari buruzko iritziak ugaritzen- ugaritzen ari dira. Idazle ezagun xamar izatera ere iritsia da. Aldaketa honen arrazoi nagusietako bat, nire iritzian, beste egile askotan gertatzen den bezala, bere bakantasunean datza. Hainbat sortzailek egiten duten lana hain da senetikoa eta errotikoa, ezen aurretik uste duguna ahaztea jakintza bidea izan daitekeela ondorioztatzeko denbora-tarte bat behar den.

Kasu honetan, aurrena onartu behar da Marina Tsvietaievaren bizia –bere literaturarekin hain lotua– ez dela etiketa-erraza eta sailkatzeko eroso. Har dezagun ,esate batera, feminismoaren historia kontutan, zeinetan gizonak eta emazteak berdinak direla aldarrikatzen dutenak, emazteak eta gizonak ezberdinak direla aldarrikatzen dutenekin aurrez-aurre jartzen diren. Berdintasunean ala bereiztasunean funtsatutako identitatearen errebindikazioaren ikuspegitik ere Tsvietaievak amodioaz edota amatasunaz zioenak batzuetan alde batean kokatzen du eta beste batzuetan beste batean. Eta horrela maitatzeko erabateko askatasunarekin leialtasunaren ikuspegia eta, seme-alaben funtsezkotasuna zail gertatu dira batera ulertzen.

Klase ikuspuntua ere har dezakegu kontutan, hain menostua dagoen arren. Tsvietaieva Parisko atzerriratuen zirkulua bezala edota bere emanaldietara joan ohi ziren emakume kultu gehienak bezala, aberaskumea zen. Haien aldean, ordea, erreka joa zen eta gainera miseria-egoerei aurre egiteko tresna-gabea suertatu zen. Familiaren ardura guztia bere gain zegoen, eta neskameek hazitako amak, seme-alaben bizimolde-beharretara egokitzeko zailtasun latzak zeuzkan. Horrelakorik ikusezinezko bihurtzen zen bere klaseko emakume artean, haietako askok gogotik lagundu zioten arren.

Bai liburu hartan esaten zuenagatik –eta beraz amatasunak ematen zion bizi-indarragatik–, bai esateko moduagatik ere harrapatu ninduen Tsvietaievak. Bere estiloan gauzak erabat argudiatu gabe besteengana iritsarazteko moduak ere hunkitu nuen. Deskubritu nuen bere amatasunari gorazarre egiten zion emakume libre eta aldi berean, eta horretxegatik, lotu bat; deskubritu nuen idazteko orduan bazela aitatu eta aipatzen zen erreferentziaz betetakoaz gain beste bide bat: ez batere aristotelikoa, eta jauziz betea, bete-lanik gabeko hutsartez konpreniarazia.

Funtsean Marina emakume bakanegia zen eredugarri izateko garai hartan, baina hein batean eredu bihurtu da XXI. mendearen hasierarako. Intelektoaz gain sena eta emakumeon jakinduria aintzat hartzen zuena. Eta ordura arte, intelektualki ulertua nuen hain azpimarratuta adierazten zen emakumeen egoeraren ifrentzuan zegokeen egoeraren argia topatu uste dut.

Eta horrek poliki poliki eraman nau hausnartzera emakumeen tradizioen gordelekuei buruz, eta gogoeta egitera euskal ahozko tradizioan. Hala, nire amatasunaren garaian euskal testuetan berriz uste dut amatasunari buruz eta erditzeari buruz izan ditudan erreferentziak metaforikoak izan dira, dela Mila Lasturkoarenean, dela, *Gaur da nire kristaua* izeneko kopletan agertzen dena, mirakuluzko haurgintzaz diona, “nola eguzkiak kristala pasatzen duen puskatu gabean”.

Amatasunak ere hala zeharkatu nau, iragana puskatu gabe eta neure senera ekarriz. Eta esango nuke amatasun hau familia izan orduko sentitu dudala indartsuen, eta hori haurrondoetan konprenitzen, ziurrenera, gure amari, izeba Maria Rosariori eta ahizpari ikasi diedala.

Beraz, naturak eta liburuak batera egin zuten berriro lana. Ama izatean ume bihurtu nintzen edo izan nintzen umea agertu zitzaidan, aspaldi ez bezala. Neu esperoan geratu nintzen ere poema agitz idatzi nuen haurdunaldiaz eta sorkundealdiez. *Izen gabe, direnak* du izenburua liburuak, eta liburu harekin hautsi nuen urte batzuetako isilaldia ere. Poema batzuk, amatasunaren lehen aldi hartan, nire baitan sortutako emozioek sorkuntza literarioari egindako ekarpenen harira idatzi nituen eta, beste batzuk, berriz, jaiotzeaz zen alabari eskainiak. Baina geroko guztian, uste dut, eraldatzaile izan dela niretzat. Eta hala, *Glosak, esan gabe zetorrena* poema liburuan, adibidez, oso gogoan dut Egunkaria auziko auziperatzeetan idatzi nuela, ordu hartan atxilotuak zirenez eta bere seme-alabei buruz pentsatuta *Zaparrada-erasoa*.

Beno... baina ordua da esateko. Hogeitamairu urterekin izan nuen alaba. Gero semea. Bi seme-alaba dugu, eta harrez gerokoan pentsatu izan dugu ez ditugula guk ekarri bizitzara... baizik eta beraiek ekarri digutela bizitza. Eta orain orain

bezala, iruditzen zait beraiekin etorri zaidala –niri behintzat– orduan animaltasun deitzen nuena eta orain sena deitzen dudana horrekiko onespena, guregan datarren bizi-indarra, adur berezia... bizitza ezerean azpitik ez jartzeko agintzen diguna, eta familian bezala gizartean babesa eta laguntasuna ezinbestekotzat direla sinestera ekarri nautenak.

## **2. Besteekin tokietan**

### **2.1. Ahots eta ametsen kalea**

Ez naiz sekula izan loak berehala harrapatzen dutenetakoa. Gogoan dut, oraindik, nola amak, lokartzeko, esaten zidan: jar zaitez lbargurenera begira. Gelan etzanda lbargurengo argiek baserria bertaratu egiten zuten leihoraino, iluntasunaren amildegiaren gainetik salto egiten lagunduz. Oso ilunak ziren orduko gaurik gehienak, artean, ez baitzegoen oraingo farolik eta lbargurengo argien distirak kristalean pausatuta antzematen nituen, urrutiko izarrak baino beroago. Oso berandu zela adierazi nahi izaten zidan amak, eta argia seinalatuz esan ohi zidan “Hara, hor ari tuko da Arantxaren aita ukulu-lanetan” eta orduan errenditzen nintzen, lagunak lo egongo zirelakoan. Eta argi hura ez zen sekula itzaltzen ni loak hartu aurretik. Esnatzen nintzenerako, hori bai, lbarguren, argiak itzalita, zuri eta luze agertzen zen, gauez baino atzeraxeago, aurrealdean, Albitxerriko Gregorio zenaren arta-soro ederra eta Estankoko lñasioen baratza zituela.

Esnatu berritan, kaleko biziak iragartzen zidaten ordua. Esnezaleen ahotsak entzuten nituen batzuetan, Dendaberrikoen atarian astoa lotuta. Etxe bakoitzera igo beharreko esnea neurtu eta marmita handienetatik ontzi txikiagoetara pasatzean, pertzen metal-soinuak adierazten zidan artean goiz samar zela.

Beste batzuetan jaikieran lñasio perratzailenetik gizonaen ahotsak iristen ziren: Elbarrengoak, Aiestaran errekaok, Arru gainekoak, Saturdi aldekoak, Mendizabal edo Gorriñe aldekoak... Tarteka behiren baten marruren batekin ere nahasten ziren, eta lñasio horrelakoetan lan luzea izaten zuenez, eskolatik etxerakoan han biltzen ginen ume guztiak, behie perrak nola jartzen zizkien ikusteko, Fabrika Handiko langileak bizikeltan eguerdirako itzultzen hasi arte.

Ferratzen ote dira oraindik behiak eta mandoak? Eta non ote dira perratzailak, galdetzen dut nire artean, Ferratokia zen tokian. Handik abiatua naiz makinabat aldiz Gaintzeraino gaztetan. Gero GR-20 ibilbideari ekin zekioken... baina orain, berriz, zorioneko saihasbide bat bada, aurrerabidearen izenean geure ohiko ibilerak, geure iraganerako harat-honatean erreten handi bat, iraganezin bat ere sortzen duena.

Porlanezko eskailara-mailetan gora ekiten nion belaunaldi askotan baserri-tar eta eskolumeeana izandako bideari. Zeinek erabiltzen ote du orain? Bilatu ahal izango ote nituzke baserri-tarrek oinetakoak aldatzeko izendatuta zeuzkaten harri-tar-teak? Eta galderen artean ekiten diot igoaldiari, oroitzapenen kutxa zabalduz, ibiltzeak eta oroitzeak, biek, egunerokotasunaren langa pasatzen lagundu eta arre-tarekin betaren zelaietarainoko bidea irekiko balidate bezala.

## 2.2. Oroitzapenen baso eta ingurumariak

Albitxerrikoek erabiltzen zuten sorora iritsi orduko bistaratzen ziren Zaldibiko gain eta muinoak zaintzen dituzten baserriak: atzean Miranda, ezkerrean Aldau, eta eskubian Gorriñerekin Biosola eta berehala bistatik galduko zen Aiestaran–erreakaren lekuko Aierdi.

Berehala iristen da Iburguren izeneko bi baserri artera. Handik gora jo behar da, ahal dela ezkerretik, larre eta sastrakek itxita egon arren, porlanezko eskaile-ra mailak igoz. Ur erretanak dakarren hotsak apenas isiltzen duen oraindik Larraitzeruntz doazen autoen zarata, eta bidean, eskubian, dagoen askatxo bat pasa orduko ikus daitezke Zaldibiko azken kaletxe zirenak: Etxabenea eta Goiko Bikarioetxea, azken hau etxe berriz eta parkinez inguratua.

Baina goranzko bideak, Ñañarriren estampa aurkezteko Urtsu-errekaz goialdetik dagoen bidea ere aukera nezakeela gogorarazten dit: horiz pintatutako Gorriñek Urtsu-erreaka eta Aiestaran erreka bereizten dituen bide aldapatsuan gora doana. Gaur egun mendira doazenean autoz igotzen dute, bide guztian behin Goskindi pasatuz gero desafioan nabarmentzen den Nañarri tontorra Gaztelu edo Enirioranz abiatzen direnean desager dakiekeenik pentsatu gabe.

Hurrengo aldapa igo eta porlanezko eskailara-mailak amaitu orduko azalduko da Aralar bete-betean. Gain honetara arribatu ezkerreko badirudi ingurumarian mundu osoa datorrela eta mundu osoa ingurumari honetatik bistara daitekeela.



Amaia Zubiria eta Tere Irastortza poemak irakurtzen eta kantatzen



Euskal Herriko toki askotan irizten diot ezagutzen ez ditudan soro, baso, pinudi eta larre gehienetan barrena han eta hemen, ez dagoela zokorik inork ikuskatu, neurtu eta maneiatu ez duenik. Hemen, gainera, nire golkorako badakit, inon bada hementxe, bakarren batzuk, txanda pasa egin ahal izango ziotela –eta diotela– minari, murko ganean periodiko papera zabaldu eta beran bizitzan jasotako opariak bildu ondoren, amildegi baten ertzean etzan eta burua apur bat aurreratuz izua konjuratuz, ala orbel artean gordetako onddo usainarekin basoaren perfumea biriketaratuz, eta toki honen indarra xurgatuz oroitzapenik gabe ere bideak eta ingurumariak naramate, batean Aizkorriara begira hurrengoan bestean Usurbe eta Murumendi lerrora, eta hurrengo hartan Gaintzako elizari edo Aralari erreparatuz. Muino honek munduaren erdigunean gaudela sinetsarazi diezaguke, geure baitan oinarrimurik aurkitu ezkeru.

Edozein aldetara begiratuta ederresten dugun paraje hau zeharkaezin eta iristezin bilakatzen da. Bidean beti aurrera eta gora egin behar dugu. Laster iritsiko gara Arruarteko gainera. Suegiraino egiten duen bide honek ez du galerarik, beti gorantz egin ezkeru Gaintzako errepidera ateratzen baita, eta Arruarte gaineko baserrietara iritsitakoan, deskuidatuta, ezkerria hartu ezkeru, berriro Zaldibira jaitsiko baikaitu. Behean Peatzeta, Telleri et Bentaberri utzita, Gazteluren magal batean Olegi baserria, oraindik zurezko egitura gordetzen duena.

Handik hurrera dago Arru, bide honetan zutik dagoen azken baserria. Paraje horietan Ñañarri eta Murumendi gainak, Mariren Goierriko bi bizitokiak, parez-pare geratzen dira. Barandiaranek 1921an, 67 urteko M<sup>a</sup> Antonia Aierbek esanda jaso zuenez, “Mari “Zazpi urtetan Txindokin eta beste zazpitan Murumendi”, bizi omen da, Mari, “emakume bat, bere modukoa”. Eta inon bada, hantxe sentitu izan dut, Anbotopean bezala, Mari badena. Badela baiaren eta ezaren dama, lurpean bizitzen eta zerua zeharkatzen dakiena. Makina bat zaldibitarrek ikusi omen du gauze sua zeriola zeharkatzen, Murumenditik Txindokira eta Txindokitik Murumendira, zuzen-zuzenean. Baina esan ezin sinesten dena. Denik ezin esan eta ez denik ezin sinestu, gizaldiz-gizaldi iritzi, ideologia eta sineste kontuak aldatu arren iraun duen bizi-pena.

Sinistu –\*sen-etsi ala ez sinetsi pasa daiteke Arru, Zaldibin eta edozein euskal muinotan. Zaldibin pinudia zeharkatu eta bost minuturen bueltan, Gaintzetik Larraitzera doan bidearekin egin ohi zen topo. Zain Ñañarriren bizkarraldea, Gazteluren ondoan. Geratu edo itzultzeko ordua iristen da, bide bat hartzekoa edo beste bat hartzekoa, eta behin batek erakutsi zidan bezala, bizitzan galdera garrantzizkoei bai ala ez erantzun behar zaie, gu, sarri bai eta ez esan beharrean geratu arren. Sinplegoa izan daiteke Zaldibiko plazara iristea, aldi berean bi bideak erabil ez baitaitezke ere. Bi bideak ditut nireak, baina.

### **2.3. Zaldibiko kalean umetan**

Larogeiko hamarkadaz geroztik Euskal Herriko herrietako itxuraldaketari erreparatu ezkeru, ezin da irudikatu nolakoak ziren umeak gure haurtzaroan. Hirurogeiko hamarkadaz ari naiz, esate batera.

Ni kaletarra naiz eta haurtzaroan iruditzen zitzaidan kalearen erdian ezezik munduaren erdian zegoela. Orain leihora atera ezkerro bakandu egin da gure kalea, eta progresoak erdian harrapatu du berriz.

Aurrez aurre izan ditugu urte luzez Telefonoetako Mari Karmenen etxeko leihoak. Hutsik. Bixenteren vesparik ez da ageri gure espaloian, M<sup>a</sup> Karmen zena-ren lokutorioaz Mariren ipuinei buruz bezala hitz egin beharko diegu gure umeei, sakeleko telefonoen arora sarturik, urteek gizaldi osoen abiadura hartu dutenez.

Azpian Pepitaren balkoia zen, Arestik aipatu eta Imanolek kantatua; ondolan plaka bat. Semea eta iloba bihotzean. Teilatuaren gainean Iburguren eta esku-bian Gaztelu gaina.

Orain ez bezala, gure haurtzaroan, esango nuke, ez zela kalerik Zaldibin, baietik eta kale-etxe batzuk, eliz-ataria eta frontoia. Eta horrekin goian Goiko Plaza. Kale etxe batetik bestera zelaiak eta baratzak zeuden, Amundarain ibaiatz bestaldean guretzat Biandako txara eta baserri-bideak eta mediku-etxearen edota perratzailenetik atzera berriro soro, baratz eta baserri bideak. Etxe batzuen aurrean baziren espaloi-zerrenda batzuk eta Goiko kalean Aztiriagan (Iztueta hil zen etxean) edota Melitorenearan etab. astoak eta mandoak lotzeko burdinak, baserriarrek eta artzainek kalerainoko karretoan erabiltzen zituzten animaliak lotzeko.

Kalean ere apenas zen automobilik. Fabrikako ogizalearena edo autobusak salbu eta eguerdi aldean, Fabrika Handiko langileak, bizikletan edo motoan bidea egiten zutena, eta neguan, erabat estaltzen zituzten kapen azpian pedalei eragiten ere ikusten ez genituenak.

Oinezkoentzat ziren, beraz, kaleak, absolutuki eta goizetan, kale etxeetako etxeoandreak etxeko lanak egin bitartean, lehioak irekita aritzen baitziren, eta bertatik ateratzen ziren kantuek, irratiak nagusitu gabe baitziren artean, alaitzen gintuzten.

Gogoan dut Arretxeneko Arantxak, bereziki ederra zuela ahotsa, eta baita Julitak ere, eta halako poz bat sartzen zela gelak hegoasterakoan edota koltxoia jotzen sortzen zen giroarekin.

Umeontzako ez zegoen jolas-toki berezirik, eta ez dut gogoan jolas-denbora bereziturik zango zen ala denean aurkitzen genuen jolasa, hala beharrez.

Albitxerriko petrilean pipak janez ematen genituen udak arratsaldeak eta neguan edo eguraldi txarra egiten zuenean ez ginen kalera irteten. Hala ere, elizako arkupeetan, zimiterioak deitzen genituen haietan, sortzen zen zemahi jolasetarako aukerarik: goman edo soka-saltoan aritzeko, esate batera, *kien te la para* deitzen genuen jolas hartan, frontoi pareko gurutzean keinuka ari ginenean, edo hantxe txorro-morrotan ibiltzeko edo lau-txokotan aritzeko, mutilek pixa-lekutarako erabiltzen zuten txoko gaineko ertz erpinean.

Frontoian ez ginen ibiltzen neskak, brile-an neska-mutilak batera hasi ezean edo, eta hala ere, gogoan dut neskak, batzuk behintzat, ibiltzen ginela pilotan fueraketan, edota bizikletan ere, eta koxkortu ostean, baita raketan edo palan ere. Gainerakoan, geure jolas gehienak amaketan edo dendarietan izaten ziren, eta nik uste, Zaldibik gure neska taldean, handik edo etorriko zitzaigulako antzerkirako halako geurezko joera hura.

Jolas horien inguruan osatzen zen geure lagun artea, baina guk, behin hamar-hamaika urtez geroztik, bagenuen talde gisara beste bi eginkizun: musika zaletasuna eta eskola-antzerkia (erdaraz, noski). Batean zein bestean oso libre, autonomo eta autodidakta izan ginen, hala beharrez. Abeste kontuan Arantxa gure lagunaren arrimuan hasi ginen. Geure garai hartan oso bakanak ziren musika ikasten hasten zirenak eta Arantxa izan zen, geurean, solfeoa eta esku soinua gaztetan ikasten hasi zena. Hark zer jotzen ikasi guk huraxe kantatzen genuen eta entsaia-tzera Iburgueneko ganbarara joaten ginen. Hasieran kanta euskaldunak ziren, garai hartakoak *Belardiak kanta*, *Eguzkiaren argitan*, *Baserritarrak gera gu*, *Aitorren hizkuntza zaharra*... Eta gero koxkortu ginenean eta Arantxa bere gisara partiturekin moldatzen zenean, gehienetan rantxerak eta horrela. *Que será será*, *Si Adelita se fuera con otro*. *El preso número nueve*... eta orain orain bezala pentsatu bagenu agian sekula, letra bidez behintzat, hunkituko ez gintuzten hainbat kantu.

Gero irakasleen urte betetzeetan, hamabi-hamairu urte izango genituen ordurako, antzerkiak bilatu edo asmatu eta entseatu ondoren antzezten genituen. Ordurako aldatua zen irakaskuntza sistema ere, geu bosgarren mailan O.H.Ori (orduan EGB deitzen genuena) lotu gintzaizkion.

Alde horretatik, bi aldaketa nagusi ditut gogoan, 70eko hamarkadan eta bere egituratze fisikoa ere izan zutenak: Zaldibiko plaza berri eta bertan platanok eta bankuak jarri zituztenean eta bestea Guraso Elkartekoek sortu zuten parke txiki bat, Biok-bat etxearen aurrean, Lourdes-enea parean. Horrekin batera gazteak antolatzen hasi ziren eta aste bukaeretan zineak eta jolasak ere izaten ziren.



*III Festival Internacional de Poesía de Moncayo (1984). Tere Irastortza bere testu baten aurrean*

## 2.4. Etxe eta etxekoneko

Familia esatea etxea esatea zela baserrian. Hala erakutsi digu antropologiak. Ni kaletarra naiz, baina hein batean gauza bera esan daiteke beste espazioei buruz ere. Eta etxeek izena zuten, oraingo kale-etxeek zenbakia duten arren.

Izan ere, etxea, geure etxekonekoen etxea ere bazen. Etxekonekoen etxeetara sartzan ginen normaltasun handiz. Nik behizat etxe askotan sarbidea nuela irizten diot.

Baina geure ume-munduan ere egoerak aldatuz joan ziren. Hasieran, kale etxean bizi ginenak, etxekoneko euskaldunak izan genituen: jostunak eta jostundegia, *El Bufalo* inpermeabletarako lan egiten zutenak, andereen lantegia, edo Ramona, Zubialdeko Mirenekin eta senarrekin bizi izan zena urteetan, edo Filomena eta Jexux, edo Maria Pilar eta Julio. Eta horietara oso modu normalean sartzan ginen. Nik akordu handiena Filomena eta Jexuxen etxekoa daukat, oso baitzen moderno garai hartan. Eta etxekotzat ninduten, Filomena gure adredikoa zelako, Auntxitakoa. Eta gainera alaba izan zutenean han izaten nintzen ni, umezain izenean, jolasean. Uste dut ama umeari bular ematen lasai-goza ikusi izanaren irudia nirekin eraman dudala beti... eta hein batean nire ere egin dudala, neuk geure umei bularra ematen nienean.

Mari Pilar eta Juliorena ere bigarren etxea bezalakoa zen. Haien etxea ere, berrituta, ezagutu nuen modernoenetakoa zen. Gogoan dut, behintzat, han ezagutu nuela aurrenekoz, formikazko sukaldea, aereo, gainera. Gris-zuria zen eta heldu-lekuak metalezkoak zituen. Hantxe ikusi nituen aurrenekoz plastikozko gantxo koloredunak, geuk arropa zabaltzeko erabiltzen genituen zurezko haietatik hain ezberdin!

Gerora, ni konturatu orduko, bestelako etxekonekoak etorri ziren, batzuk Biloren lan egitera etorriak, beste batzuk, iritsi nahirik, baina Ordizian baino modu hobean bizi zitezkeelakoan Zaldibira etorriak.

Haietako batzuen etxeetara ere sartzan ginen, gure adineko seme-alabak zituztelako eta, baina hizkuntzaz gain, beste kultura bat –jatorduetan nabarmentzen zena, esate batera– eta elkarren ezaupide eza tartekatzen zen harremanetan. Haietzako ez ginen halako etxekoak, ez halakoren lehengusu... Sarreratik beretik ginen ezezagun, beraz, elkarrentzako, elkarren ondoan bizi ginen arren.

Urteak pasa ahala harremanak sendotu ere egin ziren, helduen artean, baina, ordurako guretzat besteen etxeetara sartzeko adina pasatua zen.

Kale etxeetan bizi ziren gure tarteriko gehienak ere. Eta kaletarrak izan arren, bide laburra zen mundu batetik bestera, kaletik sorora, gure etxetik baserri.

Alderantzizko bidea ere oso ohikoa zen. Alde batetik, baserritarrak sarri jaitzen ziren kalera, lanera batzuk, eskolara besteak, esne partizera, esate batera. Gurera Aierdiko Rosita etorri ohi zen, eta batzuetan bere alaba Mari Karmen edo bere iloba ere bai. Eta orduan, ateak zabalik izaten baitziren, ia beti ordu modutsuan etorri arren, oso gogoan dut gure amak hartzen zituen sustoak, hain sarri harrapatzen baitzuen Rositak ustekabeen.

Baina kale-etxeetan bizi ziren gure osaba-izeba eta lehengusu asko ere. Nik, neure kirako oso lehengusu gutxi nituen, izeba Maria Rosarioenak bakarrik. Oroitzapen zaharragoak ditut baina izeba Prantxika eta osaba Jose Antonionean, Eskribaurenean. Artzain ziren gure osaba-izeba, baina Eskribaurenean txerriak zituzten. Txerri haiei ez nien irudipenik, ziurrenera beti osabarekin joaten nintzelako. Bai ordea Goiko Bikario etxera joaten nintzenean, lehengusuen jostundegira, eskaila-rapean Lutxik izaten zituen txerrien kurrinkei. Hainbesterako non lau-zangoan pasatzen nituen hango mailak. Ni izeba Prantxikaren besoetakoa nintzen eta horregatik bazen ez bazen, oso modu berezian tratatua sentitzen nintzen beti. Osaba ere ez zegoen edozein moduko gizontzat hartua gure etxean. Aingerutzat kasik. Osaba-izebeneko sukaldean, sartu eta albo batean, bazen armairu txiki bat, eta gainean, mentazko karameloak izaten zituzten eta gogoan dut nola, sarri, karamelo hori hartuta joaten nintzen etxearen atze aldean zeuden txerrietara osabarekin. Gogoan dut aulki baxu bat eta baita antzeko aulkirik, orduko etxe askotan ikusi izana ere.

Aztiriagan, berriz, izeba Benitarenean –amaren izebaren etxean– ere bagenuen sarbidea, nahiz eta ni, ia beti, Lupe eta Ramonenarena joan, haiek baitziren gure etxekoneko Maria Pilarren aita-amak. Izeba Benitaren etxera, berriz, gehienetan Sevillako osabekin joaten nintzen bisitan. Baina gero ere bakarrik sartzen ginenetan gogoan dut beti izaten zela tomatetan edo induabetan bustitako ogja guretzat. Eta ez zen guretzat gauza goxoagorik orduan!

Mentazko karamaeloa batean, bestean arana edo intxaur eta halakoetan ogja saldan bustita. Zerbait joaten ez bazait burutik, ia beti abegi ona egiten zigutela eta denboraz gain arreta eskaintzen zigula gizaldi hartako jende helduak, etxerik etxe ibiltzen ginen umeoi.

Orain, atzera begiratu eta ikusten dut zer nolako erraztasunez sartzen ginen umeok etxe haietara eta nola sartu orduko nor izaten ginen. Eta nola jaso eta zabaltzen genituen kontuak eta esku-muinak eta muxuak. Eta hunkitu egiten naiz, orduan, edozein lanetan ari zirela ere, ia beti ongi etorria egiten baitzitzaigun. Burura etortzen zait, ziurrenera, orduan, sekula ez zirela etxeak hutsik egongo.

## **2.5. Hotzaz**

Hutsik geratzen ez ziren etxe haietaz pentsatzen ari naizela, orduko hotza etorri zait burura. Orduan sukaldeak bero egoten ziren, baina etxeak ez eta, kuantu, ezta kaleak ere. Kanpotik etortzen zirenentzat pronto izaten ziren ladrilu beroak, labetik zapi batekin helduta atera eta oinetan jartzeko. Beroa barrutik etorri behar baita, eta horretarako, behar izaten ziren ladriluak eta salda edo kafea, bero-beroa, eskuetan, gero barruak berotuko baziren.

Ondo jantzi ezkeru ez zegoela hotzari zertan beldurrik izan eta kamisetak eta alkandorak eta jertseak eta tokilak jantzita egoten ginen etxeetan. Horregatik, sudurra hoztuta esnatu eta jaiki beharra gogorra izaten zen neguko goizetan eta batez ere ikastera jaikitzen ginen goiz haietan. Ondo ondo jantzi –anoraka ere bai behar izan ezkeru– ladriloa jarri oinetan, kafesnea berotu –txirbilarekin ekonomika piztuta umetan eta gerora butanoan– eta hasten ginen ikasten goiztar ginenak.

## 2.6. Hegazti migrariak ez bezala: galdera batzuei zehatzago erantzunez

Gainerakoan, norbere heziketak azken etapa bat balu bezala pentsatuta, sentitzen dut galdetzen zaidala nire garapenean aztarna utzi izan duten bidaiez. Makina bat atze-aurre eginez bizi naiz, egunerokoan, eta hala ere, ez naiz munduan oso urrutira joan. Euskal Herria hobeto ezagutzeko baliagarri izan zait idazle izatea eta oso miratu gerako naiz, ia beti, iritsi naizen toki guztietan. Baina ez dut halako bidai inizatikoren irudipenik. Are gehiago, artista artean, gehiegitan, batzuen eta bes-teen arteko hika-miken hariak aspertu eta elkortu egin ohi nau.

Are gehiago, uste dut niretzat inizatikoenak izan direla beti nire lan-mundu batetik beste lan-mundu batetara egindako eguneroko bidaiak: dela Bergararik etxerakoak, UNEDen eta Idazle Eskolan nabilenetan, dela Donostiatik etxerakoak EIEEn ibili izan naizenean, dela hainbat bazkari edo solasaldi ondorengokoak (V. Huizi edota K. Igartua edota X. Pardorekin egindakoak). Uste dut eguneroko bizi-moduan egindako atze-aurre bakartietan (autoan, trenean..., ibilian Euskal Herrian) izan dutela eragin handiagoa, bai intelektualki, bai sentipen moduan ere.

Ez naiz, beraz, izaki migratzaile sentitzen, eta ezagutzen ez ditudan tokiak ezagutzea oso atsegin izan arren, batez ere, behar dudana epeltasuna, maite dudana jendearengana biltzeak ematen dit.

## 3. Besteengana bilduz: ahaztu eta ikasi

### 3.1. Zigor-eskola

Ikasi genuen, ondo gainera, *si vendría* eta *si sería* gaizki esanda zeudela eta ikasi genuen *vaca / baca* bereizten, berak *vaca faca* antzera ahoskatzen baitzuen.

Eta oso ume izango ginela irizten diot komunera joan gabe pasatzen erakutsi zitzaigunean. Horretarako orinala erabiltzen zen, pixontzia. Orduan, bazen geure gelan orinal bat, polio-arekin edo ezinda geratu zen ikasle batek ekarria, horretara behartzen zenerako edo. Eta srta. Doritak, gogoia zuenari orinala presentatzen zion. Denen aurrean bere mahai gainean jarri eta hara igotzen eta eginarazten zion, behartzen zen neskari, estu-estu eta erdi-zotinka, gehienetan. Ez baliatu behar izateko geure gelako neska batzuen postura bihurtu zen oinak gurutzatu eta eusten egotearena, entrenatzen arituko balira bezala, behar zenerako, gogoari eusteko.

Ez zen hobia inori errieta egin eta zigortzen zuenekoa. Orduan ere mahai gainean jarri, kuleroak jaitsi eta ipurdikoak ematen baitzizkion.

Eta ez dut uste ume aldrebesak ginelako izango zenik, eta ezta esanekoak ez ginelako ere, sei-zazpi urteko neska haiek. Ez dut behintzat nahita gela barruan eta egindako barrabaskeriarik gogoan. Hiztunak izan gintezkeela bai, eta neu ere, izatekotan, halaxe izango nintzen, horixe azpimarratzen baitute ezagutu nauten guztiek.

Kontua da behingo batean, ez dut gogoan zergatik, ni zigortzera etorri zela: kuleroak jaistera, beraz. Eta nik, beregana joan ordez eskapoari ekin niola. Gelako mahaiak lerratuta zeuden eta inguru guztian geratzen zen trantzitu bat. Eta korri-

ka hasi nintzen eta bera nire atzetik etorriko zen. Ez zen itzuli batekin amaitu, ikaskide batek, zangalatraba jarri eta estrapuz ere egin bainuen. Azkenean, gogoratzen dut, aulki batean eseri nintzela eta trabeskatu nituela beso eta hankak aulkikoe-kin eta hantxe geratu nintzela zurrin, zuri, tinko. Eta begiak itxita. Eta halako batean ireki nituela. Ez dakit berriz –edo sekula– begietara begiratu zidan maistra hark, baina nire gogorapenean, badakit orduko hartan ez ninduela jo eta berriz ez ninduen zigortu.

Geure gelan ez zen gertakari hutsala gertatuko, etxean esan ez banuen ere, zeren eta handik urte askotara, aurreneko edo bigarren kinto-afarian, zangalatraba egin zidanak ekarri baitzuen mahaira eta ni, denek ahaztuta izango zutelakoan, artean, oraindik, erabat gorritu bainintzen gogoratzean.

Horrelako pasadizoak –eta ondo dakit, are gogorragoak ere– nahiko arruntak ziren gure garaiko eskolaumeen artean eta ez gutxiago gu baino zaharragoen artean. Esan nahi dut ez zirela inola ere salbuespenezko egoerak.

Señorita Doritak fisikoki erasotzeko beste modurik ere bazuen. Bazen elbarrituta geratu zen haur bat gure gelan. Eta ez dakit gure garai hartan sekula ezinduta zegoen gure ikaskidearen alboan jarriko ginen, baina gogoan dut zein lubaki zegoen bere eta gure artean eskolan. Eta harekiko guztiok sekretupeko bereizketa bizi genuen. Hain ez zitzaigun argibiderik ematen non bere tokian ez zegoela sentiarazten zitzaigun eta sentiaraziko genion haur gaixo hari. Izan ere, bere pioxntzia baitzen geure gelako tortura-aulkia: lotsakizun-ikur nabarmena.

Ezkerra eta eskubia, ona eta txarra berezi behar hura oso errotua zegoen bizimoduko momentu orotan. Eta halaxe zen, noski, irakasle harentzat –eta esango nuke gehienentzat– baserrietakoekiko eraman ezina, bereziki nabarmentzen zena astelehenetako sarrera-orduetan.

Eta hala, hileko aurreneko ostiraletakoak, *Primer viernes* haiek, gelatik ateratzen ginelako pozgarriak izaten ziren bezala, astelehenak beldurgarriak izaten ziren. Astelehenetan “rebista” pasatzen zigun señorita Doritak: eskolako mantaltxuri plantxatuak jantzi eta eskuak luzatu eta goitik begira begiratzen gintuen, ilaran. Eskuak, azkazalak, oinetakoak... Eta baziren bi ez bada hiru, gogoan ditudanak, majo lotsarazitakoak. Arrazoieta bat baserri usaia edota oinetako lokazturen bat izaten zen, eskolara-bidean ordu erdi baino gehiago egiten zuten ume hauentzat.

Eta mingarriena, noski, ama aipatzea izaten zen. “No le da vegüenza a tu madre, mandarte con ese olor”, eta horrelakoak.

Kontrara ere, ikasleak lerrokatuta ginenez, ez zen sekula aurreko ilaran toki-rik falta izaten bere kuttunentzat –ia beti herriko printzipalen alabentzat eta– edo beste zerbaitegatik oso begiko zuen ikasle argiren batentzat.

Bereizketa haiekin gure artean sortzen zen tartea ez zen edonolako, eta hala, eskolak nahasi eta integratu beharrean, bereizketa sozial-nazionalak nabarmentzeko helburu eta intentzio osoa zuen, oraindik begiratuta garbi ikusten dudak bezala.

Eta giro krudel, gogaikarri hartan gogoratzen dut Zaldibian *Padres de Familia* elkartetik, alegia, Guraso Elkartetik ikastola sortu zutenekoa.



Pontevedra. GALEUSCA

Nik bederatzi bat urte izango nituen eta oso gogoan dut inbidiatan egoten nintzela nire baitan, eta ez inbidia gutxirekin, gure eskolen aurreko etxe berria gela batean Juan Manuel Perrazaleneakoak eta Joxe zapatariak, uste dudanez, garaje bat edo pintatu zutenean haurren ipuien irudiekin.

Ikastola(k) ez (baitziren) baitzen izan –geure umetasunarentzat– euskaraz erakusten zuen beste eskola bat, baizik eta bestelako eskola eredu, geuk jasaten genuen sistema hura halabeharrezkoa ez zela adierazita uzten zuena: neska eta mutilak batera, lurrean eserita ikasten omen zuten ikasleek eta txotxekin kontatzen; eta gainera gelatik kanpo zer-ikasiaz zegoela aldarrikatzen zuen. Hori izan zen, nire begietarako, nire haur-begiradarako, eraldaketa nagusia.

Ez genekien askoz gehiago baina gure umetasunean, geure oso baitan, beste batzuk geure alde egiten zuten justizia zen.

### 3.2. Neska-mutilak kalean

Familiak handiak ziren: aita-ama eta anai-arrebekin batera, lehengusu, osaba-izeba... andre eta gizon, neska eta mutil. Hori bai, zerbaitegatik, arrazoi oso oso inportanteak medio, gizonezkoak eta emakumezkoak ez ziren batera esertzen elizan, eta andreak ezin ziren sartu elkarteetan. Eztabaida eta ukazio hori ezagutu dut gertu gertutik, artean nerabe nintzela Gaztelu, Zaldibiko elkarte batean izandako tira-birak medio.

Niri dagokidanean ondo erakutsi zidaten hainbat postura eta jolas, hainbat hitz eta keinu oso itsusi eta ezegoki zela guretzat, neskentzat. Pentsatzen dut



ez nuela behar bezain ondo barneratuko, beti horretan aritzen baitzitzaizkidan. Uste dudanez mezua geure gorputzari buruzko agindu eta arauetan zen nabarmentzen.

Ez dakit mutilei hain garbi adieraziko zitzaien, baina guri behintzat segituan ezarriko ziguten mari-mutil izena txistu jo ezkerro edo korrika, futbolean, bizikletan edo zuhaitzetan gora ibili ezkerro; eta are gehiago, esertzerakoan izterrak batera batera ixten ez bagenituen edo modu erosoan gurutzatzen bagenituen. Gaur egun, iruditzen zait, imitazioaren poderioz barneratzen dela hori errazago eta politikoki zuzena ez delako ez dela hain formalki esanez errepikatzen. Garai hartan, beste hainbat mugak onartuz bizitzen ohituak ginen neurrian, agindupera eramanerrazago izango ginen, ziurrenera, izan, denean ezezkoa onartzen ikasiak baikinen, onartzea beste aukerarik ez balego bezala.

Horrela, amak ateratzen zuen arropa, sarri berak josia edo lehengusuena eta konpondua: gustatu egin behar baina!

Arroparik modernoenetakoak izango ziren, ziurrenera. Geure etxean garrantzizkoa baitzen jaste-kontu hori. Ama zen geure jostuna. Baina gogoan ditut beste jostundegi batzuk ere. Pedro Sastrearena, Iturritzako Martixorena, gure etxe ondoan Fabrikako Julia, Maritxo eta Filorena, gure etxean azpian Arruartearena. Baina bereziki guretzat, modernisimoa, Goiko Bikario-etxean. Hango lehengusu jostunak modernoenetakoak ziren eta miradoreko argitasunean oihal koloretzuek are biziagoak ziruditen. Fabrikakoen jostundegian botoiez betetako kutxa izaten bazen gure jolasik kuttunena, Goiko Bikarioetxen, botoiez gain, oihal puskak eta koloretako modazko aldizkariak aurki nintzakeen. Aldizkarietako neska haien orrazkerak eta jantziak ez zitzaizkidan nola-halakoak iruditzen, dena *prêt-à-porter*, minigona eta maxifalda... esan ezinez eta izan ezinez okituta neska modernoek aurreneko adierazpide isila; isila eta mutua, artean, plantxak ekonomikan gorituz lisatzen baitziren jantzi eta ametsak.

Baina ni, hain zuzen ere, ez nintzen, ahizpa eta lehengusuak bezain pinpirina eta moderna. Neuri eta neure garaiko askori gustatzen zitzaigun janzkera askoz ere *unisex*-agoa zen, orduan esaten zen moduan. Hainbestera non institutura joan ginenean, geu, orduko neska gehienak bezala ez ginen pintatu eta makilatzen, geure aurreraxeagoko gehienak eta oraingo asko ez bezala. Itxura batean aldaketa handiak ari ziren gertatzen. Ematen zuen gizarteak bazuela norbere edertasunaz haratago gizartearen eraldatze sakon eta iraultzaile baten premia; eta esate batera, makilatzen ziren haiek... kasik esango nuke, iruditzen zitzaigula gertatzen zenaz ez ote ziren jabetzen –gure orduko begietan–.

Neska–mutilen jolas eta kiroletan bezala, janzteko moduan ere nabaritzen zen aldeak, uste dut, zerikusi handia zuela geure gorputzen ez-ezagutzarekin ere, eta filminak etorri ziren barrutik nolako ginen erakustera, halako batean, hamabihamairuren bat urterekin edo.

### 3.3. Filminetan geure ugal organuak

OHOk aurreneko ikasleak izan ginen. Neska eta mutil aritu ginen Lehen Hezkuntzako bosgarren mailatik zortzigarrenean bitarte. Ez dut horrek bereziki markatu izanaren irudipenik, nahiz eta nahiko polemiko izango zen, kinto afarietan oraindik ateratzen baita gaia.

Neure aldetik esango nuke ez dudala aldaketa horren oroitzapen berezirik, nahiz eta, hori bai, dena berria zetorrela aldarrikatuz gertatu zen. Fitxa bidez hasi ginen ikasten eta testuliburuaren funtzioa, egitura, irudia... dena aldatu zen. Bat-batean, desagertu egin ziren entziklopedia gogaikarri haiek. Koadernoen orde ez ere anilazko karpitetan gordetzen genituen koloretako orri zulodunak zeuden: *recambiables*, geure orduko hizketan, eta haietan –bi zati eginda– idazten genituen geure fitxak, sistema berriaren oinarria.

Ezberdintasunik handiena, hala ere, irakasleriarekin gertatu zen. Maisu-maistra zahar eta irakasle gazteek batera erakusten ziguten, eta zaharrei kostatzen zitzaizen apur bat metodologia horretara egokitzea. Are gehiago, kontutan hartuta, geure artean gela unitarioek jarraitzen zutela eta batzuk, batxilerrako mutilak, gehienak, lehengo sistemari ikasten jarraitzen zutela. Haiei, mutilei bereziki, gaur bai eta bihar berriz, don Enrique irakasleak epelak ematen zizkien, eta bati behintzat, bere seme Enriquitoren senperrenak ematen zizkion.

Bitartean errotikako eraldaketa gertatu zen gure eskola haietan. Alde bateatik, irakasle gazteak etorriak ziren Zaldibira, eta beti maistrekin ikasi ondoren, maisuak izan genituen nagusi neskok. Baina Zaldibian, herria errotik irauli zuena apaiz gaztea izan zen. Ordu hartan Jesus Lasa beasaindarra etorri zen apaiz Zaldibira, guretako askok Don Jesus esan arren, beste batzuk, Jesus deitzen zutena.

Don Jesus hura, sexualitate klaseak ematen hasi zitzaigun eta noski... berrikuntza erabatekoa izan zen; agian zuztarretaraino iritsi zelako edo agian zuztarretatik zetorrelako: elizak ematen zion bozgoragailua ahots gazte bati. Apaiza izatea eskoletara katekesia ematera zetorrena, geu joan beharrean katekesiara, eta hain zuzen ere apaiz horrek bere eskoletan sexualitatea erakustea, gainera, neska eta mutil batera genbiltzanean, eta gainera filmina bidez erakustea ugal-organoak... zenbat aldaketa!

Denak zirudien ezinezko orduko mundu ikuskera ofizialek gentozenontzat, eta denak emango zuen mirakulu aspaldian mundu ikuskera hartatik kanpo sentitzen zirenentzat.

Eta hortxe, beraz, harrotu ziren hautsak gure inguruan. Gogoan dut, behintzat, behin amak eta izeba Demetria zenak elkarrekin hartu eta galdeketa exhaustiboa egin zidatena. Izan ere, nik –guk– gorputza barrutik ikusten genuenean, horretaz esaten zigutenaz berebiziko interesa zegoen gure artean. Gogoan dut zein artificio misterioitsu ziruditen erakusten zizkiguten FILMINA haiek, zeinetan, hala ere, geure ezakintasun eta sinpletasunean, ez genuen ezer ikusten eta ulertzen.

Eta oraindik begiratuta uste dut zerbaiten sentsazioa gogora dezakedala. Batetik izenak –erdaraz *ovarios*, *trompas de Falopio*, *útero*, *vagina*...– Beste nonbait ikasitako *estómago*, *esófago*, hezurren izenak bezain irudika ezinak egiten

zitzaizkidan, niri, behintzat. Eta bestetik gorputz atal haietan gorputz-puska gisara ikusi izanaren sentsazioa ere gogoratzen dut.

Eta ordura arte gorputza irudikatzea bekatu zen garai hartantxe aldi berean, geuri egokitu zitzaigun irudikatu ezin genuen gorputz batean bizitzea. Nahiz eta litekeena den gaiak geure inguruetan sortutako presioa medio, ez entzun ere egi-tea apaiz gazte hark erakusten zigunari... bada ez bada, bezala.

Baina horrelako erabakiekin eraldatu zen geure herrietako bizimodua. Askatasunezkoa beti haize-erauntsia da.

### **3.4. Idazketa - irakurketa**

Irakurketa idazketa baino koska bat aurretik dagoela irakurri berri diot A. Lertxundiri. Nik berriz, daukat irudipena, idatzi beharragatik bihurtu naizela, hala baldin banaiz, idazle.

Idazten eta irakurtzen eskolan erakusten zigutela esaten da. Baina hori hala baldin bada, galdera da “zer egiten zuen (edo zer egiten du) eskolak geu izan gintezen idazten genuenak, geu izan gintezen irakurketak hautatzen genituenak?” Are gehiago, esango nuke geure garaiko idazketa-irakurketa ikasketa hark erabat lotzen gintuela jakintza gugandik kanpo bakarrik egon zitekeela irizten zion mundu ikuskera bati.

Noski Freinet, Freireren bidez izango zen, baina guretzat euskal andereñoen irakaskuntzak irauli zuen mundu ikuskera hura, eta ez *don* eta *doña* esanez izendatu behar ziren irakasle haiek, OHO-arekin berrituak izan arren.



Generoari eta Ekintza Postiboko Politikei buruzko Nazioarteko II. Batzarra. “Adanen emazteak” irakurketan

Baina geu, OHO aurretik eta esango nuke, Bigarren Hezkuntzan hasi aurretik, geure jakintza minetik alderatu eta jakintza ofizial bat onartu eta maitatzera ere iritsiak gara.

Jakintza ofizial horren ahalegina, ahaleginak bultzatzen zuen geure hizkuntza eta kulturatik deserrotzeko, geure ingurune naturaletik jaso genezakeen guztiarekiko sakoneko mespretxua: hara nola esate batera, genero-kultura batetik urruntzea, geure gurasoek ondo ezagutzen zuten esku-langintza mespretxatzea... etab.

Horietako gaitz askotatik ez da oraindik irakaskuntza askatu, euskal curriculumean gaitasunen inguruko hausnarketari ekin zaion arren.

Hala ere, esango nuke, garai hartako autoritate kontzeptutik askatzeko ahalegin haundia eta eskertu beharrekoa burutu dela euskal irakaskuntza sistema eredu batek bultzatua eta, batean gerta daitekeen heinean, guztientzat egon dela eta dagoela eskura.

Ni behintzat ez nintzen irakurzaletu eskolan. Are gehiago, irakurtzeko eta idazteko gogoz hasi nintzen eskolan. Baina eskola haietan pasatu nituen urte guztietan gogo gabetu egin nintzen, nire baitatik halako ukazio batean oinarritu zitezkeen iraupen antzeko batean kokatu nintzen eta institutuan erabat buelta eman nion arte, oso erdi-ipurdiko ikaslea izan nintzen, oso kaskarra eraman ezin egiten zitzaizkidan irakasleekin eta oso ona ikusten nindutenekin.

### 3.5. Bibliobusa Zaldibin

Beraz, Zaldibira Foru Aldunditik Bibliobusa etortzen hasi zenean iritsi zen nire askapen momentua. Hiru astetik behin etortzen zen bibliobusa eta hasteko, maileguan aldiko bi liburu uzten baziguten ere, azkenerako, besoetan eraman ezin ahala liburu garraiatzen nuen etxera. Dena irakurtzen nuen, dena ulertu ez arren. Hasieran izenburu eta argialetxe sailen arabera aukeratzen nuen, liburu guztiak gazteleeraz zeuden eta entziklopediak ere eramaten nituen, eta baita atalak kopiatu ere koarderno batean: hara nola CHINA.

Eskolan jaso ez eta geure inguruan bilatzen ez nekien jakintza-iturri paralelo eta libreki aukeratua izan zen. Zaldibi bezalako herri batean, non, bisitatu nituen etxe bakar batean, salbu Telefonortako Mari Karmenean, 60ko hamarkadan, liburririk apenas zegoen, non egunero egunkaria erosi-irakurtzen zutenak oso gutxi ziren, non liburuak armairu edo apaletan egoten ziren, bibliobus hura ere beste zerbaiten adierazgarri zen. Gurean, osabak udan etxera etortzen zirenean erosten zen egunkaria, eta gogoan dut niretzat *La hoja del Lunes* zela interesgarriena, bertan Juan San Martinek euskal gaiei buruz idazten zuelako.

Ezpairik gabe, alor honetan ere, aldaketa handia azaleratu zen 70eko hamarkadan. Geu baino lehengusu zaharragoak ziren Aiestaran Goenan eta han liburu eta aldizkariak ere irakurri ahal izan genituen: *Reard Digest*, *Familia Cristiana*, *Aranzazu*...

Esan dezaket, beraz, mundu guzti haiek zirela ondo egokitzen ez zitzaizkidan traje edo jantziak (puru puruan Bibliobusa barne) eta, beraz, hasieratik, jakin dudala idatziz josi beharrean nintzela niri zegokidan arropa.

### **3.6. Oliveti**

Bazen idazmakina bat Zaldibin eta haurtaroko uda luzeetan geurean izaten genuen.

Osaba Sevillatik etortzen zen udan eta bere idaz-makina igotzen genuen azpian bizi genuen izebaren etxetik. Hirurogeiko edota hirurogeita hamarreko hamarkadan ez zen egongo etxe askotan idazmakinarik. Institutuan hasitakoan konturatu nintzenez.

Goiz batzuetan, osabak, diktatu egiten zizkidan gutunak, edo bere bizitzako pasarteak, oroitzapenak eta gogoetak, tarteka, azken esaldia irakurtzeko eskatuz; esate batera “La vida es un cigarrillo: fuego de unos instantes, humo y cenizas”.


Oliveti handi gogor gris hark trokela-tuta uzten zituen hitzak burmuinean, tekleatzean mahi gaineko kristala dardaraziz edota ziztatuz, agian. Tekla haien soinu eta erritmora hitz bakoitzak kolpe-sail batekin landutako izotz edo harri-gogorra zirudien. Hitzak markatu eta zizelatu beharrekoak ziruditen, gutunetarako saltzen ziren orrietan. Hartaraino non, batzuetan, gure behatz ahulak tekla artera erori eta hizki bakoitzak zauritzen zuen, behatz nagia, batipat.

Puntu eta aparte egiteko eskubiko manibelari eragiten genionean hots berezi bat ateratzen zuen: “puntu eta aparte”, esan nahi zuen, “eten aurrekoarekin”, esan nahi zuen.

Lerro arteko espazioak mailakatzeko koska batzuk ere bazituen: tarte bat, tarte t’erdi eta bi tarte artean. Tinta-zintaren posizioak ere bazituen, nahiz eta ordu hartan, beltza bakarrik erabili. Baina gorrirako ere bazuen aukera, hitz batzuei odola eragin ahal balitzaie bezala, azpimarra aski ez balitz bezala. Hizki boborbil txikia zuen eta arituaren poderioan zikindu egiten ziren tipoak: *o,a,e* bereziki erabilienak zirelako, baina baita *p,d,b* eta tarteka *m* ere. Eta jostorratzarekin tipo haiek garbitzen ere arituaren poderioz ikasi genuen, eta arituaren poderioz idazmakinak lehen egunean bezala garden eta txukun idazteko moduan jartzten genuen.

Hain berri eta txukun, non, gerora, unibertsitatean ere ez nuen bestelakorik erabili, harik eta lanean hasi nintzenean idazmakina elektrikoa ezagutu eta bat erosi nuen arte. Ordurako nire idazketa arina zen eta idazmakina elektrikoan bizkor idazten nuenez, askoz ere akats gehiago egiten nuen. Eskerrak, ordurako, paperezko tipex eta tipex likidoez gain hasi ziren atzeraka eraman eta idatzitakoa zuzentzen zuten idaz-makinak. Baina horrela, aldi berean, aldatu egin zen gure idazkera ere.

Izan ere, eskuz idatzi arren ere gogoan dut urrats handia izan zela eskuz idatzitakoa idatz-makinaz jotzea. Eskolako lanak beste kontu bat ziren: ondo aurkeztea komeni izaten zen eta denborarekin ohitu ere ohituta nengoen, alde aurreko



SUSA aldizkariaren ale baten portada

eskema bat egin ondoren, zuzenean Olivetin idazten. Baina tipex paperezkoa oso tarteka baino erabiltzen ez zen garaitan edo tatxatu beste erremediorik ez zegoen garai hartarako, idaz-makinan garbian testuak pasatzerako oso ondo genekien, ia beti, kasik, testu hura erabatekoa izango zela: hain erabatekoa non, tartekako inspirazio uneak aprobetxatu arren, kopiaketa lana izaten zen testuak pasatzea eta ez edonolako kopiaketa, baizik eta goiko orriaren azpian korex- karboiezko papera ezarri eta testu beraren bi edo hiru kopia egiteko adinako adorea ere ematen zena. Idaz-makinara pasatzerako geure baitan ondo iragaziak ziren testuak, eta idaz-makinaz jo hutsak baleko egiten zuen sentsazioa izaten nuen.

### **3.7. Beste batzuekin irakurtzen: galdera batzuei zehatzago erantzunez**

Idazten eta irakurtzen oso goiztiarra izan omen nintzen eta eskolan hasi aurretik ikasi omen nuen. Gerora ere, izan, literatur kontuetan oso autodidakta izan naiz urte askoan. Ez dut uste aparteko arretarik eskaini zidaten irakasle askoren oroitzenik. Salbuespen bi jarriko nituzke, Ordiziako Institutuan, UBI egiten ari nintzela, eta bereziki, Jesus Lainez izeneko irakasle gazte eta herabeak arreta berezia izan zuen ikasle batzuekin, ni tarteko.

Gerora bai, gutxi batzuk izan arren, hainbatek irakurzaletasuna bideratu zidaten. Unibertsitatean ikasle nintzela Jon Juaristi irakasle izana ere oso funtsezkoa izan zen.

Uste dut hori Bergaran UNEDen Euskal Departamentuan lanean hasi bitarte izan zela horrela. Orduan nire lankideek, Xabier Pardok batez ere, eta Jerardo Elortzak ere bide asko zabaldu zidaten.

Gero, zirkulu edo taldeetan beste batzuekin elkartzea ere berez etorri zelakoan nago. Eta ziurrenera, ez, berez, ez ia sekula, artistekin biltzen aritu izan naizen irudipenarekin, zerbait sortzen edo egiten ari ginelakoan baino.

Ekintzaile naiz, izatez. Hitza ere ekiteko modu bat da, ekintza batzuk iristen ez diren tokietara ere badu irribidea hitzak. Eta egitasmo eta proiektu anitzen hasieran ibili naiz beste batzuekin batera: *Susa*, *Kandela*, *Goierriarra* aldizkariak gazte nintzenean, musika eta kultur taldeak gaztetan, azken urteetan Beasaingo Ikastolaren sorrera eta garapen prozesuan... Bergarako IDAZLE ESKOLAREN sortzailea ere banaiz. Ez dut uste artisten mundura mugatzen denik talde-lana, are gehiago, ez dut uste sormena eta sorketa nire izateatik bereiz daitezkeenik, eta ez eta nire lan-senetik ere.

Nork erakutsi beste esatea da norekin ikasi, batzuetan. Eta bai, elkarkidetzan ikasi dut zerbait baino gehiago, gauzak eginez. Esate baterako, EUTG-n ikasten ari nintzela sortu zen *Susa* taldea. Gu bertako tabernan biltzen ginen, baina baziren beste batzuk lotura handiagoa zutenak. Mikel Hernandezek berriki idatzi du honetaz. Aurreneko lau-bost aleetan argiratatuko nuen, eta gogoan dut Tolosan emanaldi bat ere eman genuela, talde gisara, uste dudanez, Kike Amonarrizek antolatua.

Gero Gasteizera joan nintzenean ikastera, urtebetez, han bai, han egin genuen *Kandela* izenean talde-lana. Eta talde lan hura zen gure lanak irakurri eta

elkarren artean zuzentzekoa. Harreman aberasgarriak sortu zirelakoan nago, eta talde-liburu bat ere eman genuen argitara, Hordago argitaletxearekin: *Euskal Letren dantza* izenekoa. Nik batez ere poesia landu nuen.

Lanean hasitakoan oso giro sortzailean murgildu nintzen. Geure lanean egiten genuena askatasun handiz egiten genuen eta sormen handikoa zen. 1980ko hamarkadan eta hurrengoaren hasieran soziolinguistika eta hizkuntzaren normalakuntza eta erakundearen antolaketa zen egiteko nabarmenena. Geuk Bergarako UNEDen izugarrizko lana egin genuelakoan nago, eta hainbat ikastaro eta mintegi antolatzen genuenez, ere harreman zuzena izan nuen orduko EIEko hainbat bazkiderekin. Gogoan dut, bertako juntara joateko proposatu zidatela Ramon Etxezarreta eta Koldo Izagirrek. Artean oso gaztea izango nintzen eta nondik norakoak jakin gabe, konspirazio batetara gonbidatua edo sentitu bainintzen. Baina egia da UNEDeko Euskal Kultur Departamentuan antolatzen genituen ekintzak medio, sortu zela EIErekin horrelako joan-etorriko harremana. Andolin Eguzkitza zena ere ordu hartan ezagutu nuen.

Baina batez ere, Bergarako UNEDen izan dut nire zirkulurik gozoena. Han hurbildu nintzen, Txema Larrearen bidez, Pamielara. Eta uste dut asko ikasi nuela.

Aurreneko urte haietan ere emakume idazle izateak interes handia sortu zuen, eta batez ere Laura Mintegi eta Itxaro Bordarekin izan nuen harremana. Itxaro Bordaren bitartez ezagutu nuen Iparraldeko hainbat euskal idazle, eta,aldi berean, uste dut batera irakurri genuen hainbat lanek ere izan zutela eragina geure idazteko moduan.

## 4. Kultura dohaintza da

### 4.1. Egurrezko txistuak genituen

Egurrezko txistuak genituen. Fa sostenituan, noski. Eta larruzko txanbolinak. Uste dut Bonifacio Laskurainek egindakoak edo izango zirela. Gerora nik beste bat izan dut, egurrezkoa... Xalbador Etxeberriak oparitutakoa. Hauspoa behar du, baina distiratsua da eta zehatz eta gozoa.

Geure liburua *solfeo de los solfeos*, Ervitirena zen eta Ansorena eta Laskurainenaren metodoarekin aritzen ginen txistuan, eta gero *Txistulari* aldizkaria, Zaldibiko Guraso Elkartearen harpidetza bidez jasotzen genuena erabiltzen genuen eta Txanboren partiturak ere bai.

Solfeotan denak batera hasi ginen baina ez genuen denak batera egiten aurrera, eta gehitxo zekitenak irakasle bihurtzen ziren eta hala gehiago ikastera behartzen zuten bere burua. Ez naiz asko nahasten esaten badut, gutxi-asko, ume eta gazte 60-80 bat izango ginela solfeo ikasten eta 40ren bat bai txistulari. Gerora, txistulari askok gitarra jotzeari ere ekin genion. Gehienak neskak ginen eta gitarra jotzen hasitakoetatik talde bat ere sortu zen Zaldibin, festarik festa ibili zena.

Gure hurrengo batzuk ere, gainera, herritik kanpo egin zituzten musika-ikasketak (pianoa, klarineta...) eta horietako batzuen arrimoan txaranga sortu genuen eta kanpotik irakaslea hartuta. Lanik zailena guk baino helduxeago ziren





mutilei erakutsi eta eustea izaten zen. Txaranga bihurtu zen talde-misto iraunkorrenetakoa eta irauten du oraindik. Dagoen txistulari taldeak ez du lotura zuenik mugimendu horrekin. Eta esan daiteke txistulari taldeak sortu bazuen ere txaranga gero talde hura desegin zenean, txarangak (Ordiziako musika-eskola bidez) birsortu zituela txistulariak eta egun, uste dudanez, bina ahala biak metodologia eredu arautuagoak dituztela.

Egun txistulariak dantzari laguntzaile edo izan diren arren, garai hartan, oraindik irauten duen txistulari mugimendu haundia sortu zen, herriz herri, bailararik bailara eta herri musikaren eusle ere izan zen. Hainbat herritan lanean dihardu txistulari mugimendu hark oraindik, eta pozten naiz, sarri, burura etortzen baitzait Arestiren *Justizia txistulari* hartako pertsonaia, edo Tillac-en irudi hura Arturo Campionen *El ultimo tamborilero de Erraondo* ilustratuz.

Ziur naiz txistu eta solfeo ikasketa horiek gabe musikak ez zukeela izango nire bizian izan duen eragina, eta musikarekiko zaletasunak bide asko egiten lagundu dit: ikasleei musika klasikoa entzuten erakusten, geure tradizioa eta erritmoak ezagutzen, isiltasunaren eta arnasaren balioaz jabetzen. Eta hitzik gabeko komunikazioari erreparatzen.

Baina, oroz gain, bizitza dohaintza dugula.

## 4.2. Kultura eta dohaintza

Atzera begira jarrita iruditzen zait, hizkuntza eta hizkuntzarekin euskal sena dohaintza dela. Jasotzen den bezala eskaintzen dena. Xalbador Garmendia eta Xalbador Etxeberriak larunbat arratsaldeak hartzen zituzten guri solfeo eta txistua erakusteko. Elizako saloietan aritzen ginen, zinea ematen zen gela berean eta beti orduan hasten ginen: puntuari. Ez genuen pezetarik ordaintzen ez eta gero Beasaina joaten ginenean ere, Txanborengana, larunbat iluntzetan. Eta geu izan ginenean irakasle, 16-17 urtetik aurrera, filosofia berarekin aritu ginen. Ni hamabost hamasei urtez izango nintzen Zaldibin irakasle eta Araman ere aritu nintzen hiru-lau urtez, baina batez ere Ataunen ere beste hamarren bat urtez, Garbiñe Mugertzakoarekin.

Asko aldatu dira gauzak harrez gerokoan euskal kulturaren munduan eta euskal kulturak profesionalizatzeko bide bat hartu du eta kultura-industria bat sortu edo egin da. Hain baitzen beharrezko, gainera! Uste dut, baina, dohaintza horren zentzua, hein batean, gutxiesteko joera zabaldu dela.

Gure garaian berriz begirune handia genion euskal kultura sustatzen zuen orori. Estimatu egiten genuen eskaintzen ziguten hura. Gabezia handia genuen eta edozein puntutan agertzen zen geure gabezia hura: ezjakin ginen geure geure behar zuen hartaz.

Nik *Batista Bazterretxe* jotzen hasi nintzenean ezagutu nuen nire ezjakintasuna. *Txistuari ots gozoa nola atera* hartako bigarren kantua zen. *Uso Zuriaren* ostean eta gure ama kantuan hasi zenean konturatu nintzen zer nolako erretena zegoen gure artean. Nik izenburua ere ezagutzen ez eta amak kantua buruz zekien. Harrez gero, hainbat kantutegi kopia izan dut koadernoetan, batzuetan partitura eta guzti. Esate batera Gipuzkoako Kutxa Probintzialak argitaratua zen euskal kantu liburu bat, gero *Boga-boga* hartako letrak... Eta etxean ezagutzen ez zituzten letraren doinuak partituretatik ikasten nituen, solfeatuz etab.

## 4.3. Kartoizko kultura ez ote dugun

Kudeaketak, sor-lanen kudeaketak barne, egitura profesionala behar du. Hala ere, azpiegitura profesionalak sor-lanetik urruntzen diren heinean, ito eta itxi egin ditzakete sor-lanaren arnasbideak.

Maila pertsonalean ere antzeko zerbait geratzen da. Hainbeste gauza egitea eta planifikatzea egokitzen zaigu hainbatetan, non ez dago sor-lanak behar duen denbora geldia, pausaturako tarterik. Neuri dagokidanean, EIEko Juntakide eta Lehendakari izan nintzen urteetan, irizten diodanez beste batzuei bezala, nire sormen artistikoak murrizte handia jasan zuen, batez ere, halakoetan, sor-lana kudeaketa eta berrikuntzara bideratzea egokitzen delako.

Ondoren, berriz, Bergarako IDAZLE ESKOLan indartu zait. Bertan sortutako harremani eta harremanetan piztu den talde-lanari esker. Hainbat idazle-gairen irakasle bihurtzean, hausnarketa lan ederra burutu dudalakoan eta burutzen dudalakoan nago, eta idazteko akuilu garrantzizkoa izan da, hori ere.

Baina beti, euskal literaturan eta Ikastolen Mugimenduan egitea tokatu zaidan bide apurrean, jaso duguna itzuli beharreko sentipenak duen garrantziak eragin dit.

Profesionaltasunaren aldeko apustuak, profesionaltzeko premiak borondatezko lana gutxiatea ekarri du berekin. Dena ordaindu beharrak ordaintzen ez denari balioa kenduko balio bezala, derrigorrean.

Euskal kultura ikur bihurtuz besteek gu ezagutzea eta bereiztea beste helbururik ez duen mundu-ikuskerak aski du beretzat kartoizko kultura batekin: zarak engainatzeko Errusian barrena egiten zituzten kartoizko etxeak bezala, antzerkian erabiltzen ziren *trompe-oeil*-ak bezala.

“Euskal” jiraz mozarrotzen den gauza askorekin dut irudipen hori, eta baita, sarri, euskalgintza deitzen denarekin ere.

Diruz edo faborez edota botere-gunetxoez ondroso ordainduak direnek dute aurren eta azken hitza, aspaldian, toki askotan: liburugintzan, prentsan, irakaskuntzan,... Bitartean akziodunen batzarrak, eta bazkide batzarrak bere benetako botere erabakitzailea galtzen ari dira.

Nabarmen markatua geratu izan naiz, nire ustez, sarri, sortutako talde bateko kide ez izateagatik eta hala ere lankidetzan sinesteagatik. Eta iada berrgieta-mar urteetara iristen ari naizez, ondorioztatu dut, emakume izateagatik, eta gainera, gizonezkoen nagusitasuna disimulatuko duen talde batean txertatua ez egoteagatik ere gertatu zaidala gauza asko bizitza... baina gai honetan, oraindik, oroitzapenetik baino gertuago nago bizipenetatik.

Edonola euskal kulturaz eta senaren indarraren gai honetan, gizarte zibilean gertatzen den gauza bera gertatzen da. Eta gizartean eta herritar gisara, ez dugu asmatu geure egitekoan, estrategiak eta norantzak gidatzeko eta epaitzeko bideak jartzen. Batzuetan erakunde handiago baten sukurtsal edo frankizia izatera kondenatuak gaudela esan daiteke, beste batzuetan pentsatzen dut, eliz-sakristietako eta elkarte gastronomikoetako lagunkeriaren adarrak geure lankidetzaren eta auzolanaren zutarrak itotzen ari ote diren.

Baina kultura dohaintza da eta dohaintza horrekin negozioa egin nahi duenak ez du asmatzen, eta ez eta dohaintza denez kulturak ezertarako balio ez duela pentsatzen duenak ere.

Eta kultura dohaintza da bizitza bera ere halaxe delako, egunak maileguak ordaintzeko lanean eman arren.

## **5. Ahaztuz ikasi. Senaz. Birjaiotzaz eta sortzeaz**

### **5.1. Lehen geroetan: galdera batzuei zehatzago erantzunez**

Gure aurretik egin den artearekin dugun harremanaz galdetzen zaigunean, eraginen kontzeptua eta modernotasuna eta hausturaren arteko loturen bila somatu ohi dut, sarri, galdetzailea, batez ere, arteari klasiko edota tradizional deitzen zaionetan.

Neuk ere, gazteago nintzenean, lehena eta oraina bereizteko klasiko edo tradizionala jartzen nuen alde batean, modernoa eta iraultzailea bestean. Horren harira, hainbat urtez, klasikoa eta modernoaren arteko aldeei buruzko saiakerak irakurri izan ditut. Octavio Paz-enak batez ere.

Hala ere, azkenean, etorri naiz onartzera klasiko eta modernoaren arteko haustura eta harreman kontua ikasketa unibertsitarioek eta argitaletxeek behar duten sailkapena dela, hein handi batean. Nik nahiago dut mila bider Marina Tsvietaievak landutako garaikidetasunaren kontzeptua, Maiakovski edo Pasternak-i buruz ari denean, esate batera.

Beste alde batetik, ohiko klasiko eta modernoaren arteko eztabaiden aldean nahiago dut "oinarrizko" kontzeptua. Zer da oinarrizko sentipen edo bizipena, edo jakintza. Oinarrizko galderei nola erantzun zaie historian zehar. Eta alde horretatik, uste dut, iraganari begiratzeak eta iraganari buruz ikasteak on egin didala beti. Eta iraganera begiratu izan dut emakumeen deskribapena XV. mendeko kantutegietan aztertzean eta han gizartean ezarri nahi zen eta ezarri den pentsamendua aurkitu dut, adibidez.



## Teresita Irastortza, Olerki-sailean irabazle:

*"Poesia bakoitza hor dago eta kitto. Zergatik idazten duan?..."*

Teresita Irastortza Zaldibian jaioa da, orain 21 urte. 1980.urtean "Gabeziak" olerki-liburua argitaratu zuen, "Premio de la Critica Literaria" saria irabazi zuena. Iazko Azuke sariketan bigarrena geratu zen "Gaia eta Aldaketak" obrarekin eta juradoak aipamen berezia eskaini zion. Aurten irabazle izan da bere "Hostoak" deituriko liburuarekin. Euskal Filologiako 4. eta 5. kursoak ikasten ditu Donostiako EUTGn.

"Nik ez dakit zertarako idazten den poesia, zer den poesia. Poesia bakoitza hor dago, eta kitto. Zergatik idazten duan? Lehengo momentuan zerbait sentitu dudalako eta hori sakonduz gauzak ateratzen zaizkit. Gero hori mamitu egiten da..."

Bere lehen liburua 17 urtekin publikatu zuen. "Gabeziak", poemabilduma hark estatu mailako "Premio de la Critica Literaria" saria eskuratu zuelarik, euskaraz idatzitako liburuen artean aukeratu izan baitzen. "Nik orduan hemeretzi urte nituen baina liburua bi urte lehenago idatzirik zegoen, hamazazpi urterekin. Geroztiko eboluzioa nabaria da nere uestez. Garai hartan, betikoa, amodioa, enamoratu egiten zarelako eta abar. Oraingoan, herri, amoloiari buruzko olerki batzu sartzen badituz ere, ba daude beste gai batzu artean: heriotza, hau oso gertu ikusi dut neska baten kasuan eta asko larritu nau; gero arazo existentsiala, politikoa eta beste ere suertatzen dira".

Literatura mailan bere preferen-

tzia dauka berak aitortzen duenez. Espainiako 27.ko belaunaldian Lorca eta Cernuda gustatzen zaizkio. "Blas de Oteroren obra ere asko irakurri dut, gustora. Orain, agian, ez dago poesia sozial bat egiterik. Haren idazkera, hala ere... Euskal literaturan Lauaxeta eta Lizardi aztertu ditut "nigan eragin handia suposatuz ez duten arren". Oraingoan artean K. Izagirre, Pello Lizarralde, J. Zulaika, Joseba Sarrionandia, Arantza Urretabizkaia, J.A. Arrieta, Otiamedi, Maripi Solbes, Josu Landaren prosa bezala atzitzako poesia eta abar gustatzen zaizkio. "Aresti ere irakurri dut, euskal literaturan eduki duen garrantziagatik batipat, baina ez didate hainbeste tiratzen. Gero, aintzina liburuarekin esfortzuz haundia egin behar dut irakurtzeko, "Josetxo" edo "Garoa" ohean irakurtzeko hartu eta loak hartu".

Teresitak ez du pentsatzen literatura sariketarik bere ikazteko tankera kondizionatu eta mugatu egiten duenik. "Nik idazten dut. Ez dut pentsatzen... ba... juraduan hau eta hau daude eta orduan hitz hau sartuko dut beraien gustokoa delako. Nik bakarrik exijitzen den bertso-kopuruari begiratzen diot, besterik ez. Normalean gauza berbera gertatzen zait idazten. Halako mordoak egindakoan ikusiko dut zer egin berarekin. Euskal Herriko problema literatur mailan, editoriala bilatzea da, kaleratzea".

Teresitaren erantzuz ez dago zertan esan behar, prosa poesia baino inportanteagoa dela eta ere gutxiago

oinarrizko baten artean. Ikazteko haundi batean bai, eta horixe da sariketa guztien akats nagusia".



euskal literaturaren kasuan. "Euskal Herrian poesiak nobelak baino tradizio gehiago dauka eta hala ere ez dugu euskal poesia ezagutzen. Orain batzu hasten dira nobela idatzi egin behar dela esaten. Nirea poesia da, hori asko gustatzen zait. Nobela bat idazteko denbora gehiago eta beste esperientzia mota bat behar dira. Gainera 21 urtekin, zure bizitza oso mugatua da oraindik. Zer esan zenezake? Esan".

Unibertsitateko Zientzi-Fakultatean aurkeztu zuen pasa den ikasturtearen amaieran, 1982.eko uztailaren 15ean hain zuzen, epaimahaikoek "sobresaliente" kalifikazioa eman ziotelarik.

"Ni biologian 3. kursoan nabilenean, laborategian sartzen hasi nintzenean elikadurari buruzko plan orokor bat zegoela ikusi nuen. Nire lana horik etorri da, nik plan orokor horretako atal bat hartu dut: Histologia eta Histokimika, hain zuzen ere, eta hont ekin diot".

Ikertzeko gaia aukeratzekoan barearen alde paratu zen. Horren zergatia ulertzerreza da ze "edozein atzerketa egitean garrantzia haundia dauka bibliografiak, iturri onak edukitzeak. Gure laborategian ikerketa horiek hamar urtean ibili direnez, orduan ba zegoen bibliografia pilatuta. Gainera bareak ugari dauzkagunez lan sakonago bat lortzeko aukera gehiago dago. Ezin duzu halako zomorro arraroa hartu eta horretaz ihardun. Behar bada oso polita izango da eta bere interesa edukiko du baina bi edo hiru besterik ez daukazu eta onari horrekin ez dago jeneralizatzerik, datu partikularrak ateratzen zaizkizu eta".

Ana Mari pozik dago Unibertsitatean aurkitu duen giroa eta laguntzarekin "aurreko ikerketa batzu ere euskaraz izan dira eta orduan gustora mugitu naiz giro horretan. Gero zuzenketak egiteko momentuan laguntzaile batzu euskaldunak izan dira. Beste batzu, hala ere, ez ziren eta orduan erdaraz egin behar izan dut. Giroa atsegina izan zait".

Geroari begira sail honetan aztertzen segitzeko asmoa dauka. Orain arte euskarazko klaseak ematen ari izan da. "Hemendik aurrera Euskal Gobernuaren beka bat lortu dudanez, Unibertsitatean jarraituko dut Histologia eta Histokimika lantzen".

Resurrección M<sup>a</sup> de Azuke Saria. Egin. 1983-1-2

Molde berean, hizkuntzari adi jartzen natzaionean ez zait interesatu ohi izan hizkuntzaren jatorriaren ikuspegitik, baizik eta hizkuntza batzuk besteekin erkatuz, hizkuntzetan gorde den jakituriaren lekukotasunaren ikuspegitik, “oinarrizko” geure bizipenen ibilbidea arakatzearagatik baizik. Eta ikuspegi horretatik landu dut, esate batera, *Izendaezinaz* liburua.

Baina noski... Orain ari naiz hau guzti hau idazten, eta atzera galkiro begiratu ezker, oraingo ondorioek batzuetan argi egiten dute bizitzan gertatutakoaz eta hurrena, berriz, itzalean uzten dute geure ondorio logikoekin bat ez datozenak.

Horregatik, uste dut, idaztea eta argitaratzea bereizten ditugun bezalaxe, bereizi egin behar direla sortzea eta ekoiztea. Esan dezaket, kanpora begira, argitalpen munduari begira, ez naizela idazle erregularra, nahiz eta oso gazterik hasi nintzenegia egia denez, poema liburu asko xamar idatzia naizen. Behar bada argitaratzeko hautatu izan dudak generoak (poesia, batez ere) badu horrekin eraginik, baina ez da hori bakarrik.

Beste alde batetik, ez dut idatzitako guztia argitaratu. Esate batera, neurri txikian, saiakera askotan eta ikasketa askotan ibili naiz murgilduta, eta horiek ez daude argitaratuta, nahiz eta hainbat urtetan zutabegintza jorratu dudak, eta hainbat saiakera artikulua edo liburu ere idatzi izan. Esan gabe doa, hala ere, saiatu naizela, argitaratzen dudak guztiak (zutabeak barne) nire sortze-prozesutik ihalgia izaten.

Baina esango nuke ia eten gabe sortu dudala, gogoan dudanetik, nahiz eta hainbat urtetan, nire bizibideak eta nire burutzeko moduak urrundu nauten poesiatik.

Bizitza da etengabeko sorlana nire iritzian. Eta Beasaingo Ikastolak Kilometroak ospatu zuenean kanturako idatzitako testu batean nioen bezala: *izateko sortu eta sortzeko izan* nahi dut.

## **5.2. Eraginez: galdera batzuei zehatzago erantzunez**

Ez dakit eraginei buruz hitz egitean, ikuspegi sinpletzaile xamarra ez ote den ematen literatur-kritikan. Batzuetan, esan liteke norberak duen bakantasunaren frengisara alpatzen direla direlako eraginak.

Behar bada, beste hizkuntzetako kontzeptua bere horretan itzuli beharrean, artista baten bizipenetan eragile gertatu denaz mintzatu beharko genuke. Eta nik, oso garbi baitut, lehendik gerora eta gerotik lehenera begiratzuz sortzen dugula, arloka izendatuko ditut nire ibilbidean eragingarri (izan) diren hainbat egile.

Poesian, esan dezaket, badirela hamar-hamabost idazle behin eta berritan indartu eta berritu nautenak –haikuak, diwanak eta euskal kantutegi tradizionalaz gain–. Propercio, Hafiz, René Char, P. Reverdy, Salinas, Guillén, Gabriela Mistral, Pessoa, M. Manent, C. Riba, Rilke, John Donne, E. Montale, Elizabeth Bishop, Akjmatova, M. Tsvietaieva, R. Lowel eta Oihenart.

Nobelagitza ere asko irakurri dut, baina, batez ere, egileka. Petrarcarren *Decameron-a* eta Margarita Nafarroakoaren *Heptameron-a*, Dostoevski goitik behera behin baino gehiagotan; Proust, T. Mann, Faulkner, H. James, Kafka, Isaak Dinesen, Jorge Semprun, eta Virginia Wolf beti eskura ditut.

Eta horietatik etorria naiz bereziki hunkitu nauten dietarioetara. Eta prosa mailan, literariotzat ez diren generoetan (gutunak, egunerokoak, saiakerak...) sentitu naiz ondoen Edmond Jabès, M. Tsvietaieva, V. Wolf, Dostoievski, Kafka, Blanchot, Steiner, Sarrionandia, Joxe Azurmendi, B. Atxaga, R. Barthes, Maria Zambrano, Hanna Arendt, H. Bergson... eta zenbatekin!

Baina hainbat izen artean aita-ponte edo ama-ponterik aukeratzekotan, aurrekoetako batzuk albora utzi-ezinak nituzke: E. Jabès, M. Manent, M. Tsvietaievaeta, R.M. Rilke.

### **5.3. Sortze-lanaz eta garapenaz: galdera batzuei zehatzago erantzuten**

Bizitza eta sordana berezi ezinak begitutzen zaizkit. Urteetan aurrera egiten dugun heinean, nik uste, beharrezkoago egiten zaigula ziurgabetasun printzipioetara moldatzea eta horretarako hobe dela usteei irmo eustea, bihozkadari eta lagunartean epela bilatzea.

Orokorrean sordanerako hobe da ziurgabetasunak ematen duen umiltasuna, usteak ematen duen harrokeria baino. Baina bilakaera ez da lerro zuzena, eta bila-kaerentzat figura geometrikorik bilatu behar izan ezker, ezkerrean beti zabalik geratzen den zirkulu kontzentrikoa izango litzateke: barraskiloek bezala geuk ere geure etxea haunditu egun behar baitugu, aldiari aldiari, garen guztien artean nor izanez garatu beharko badugu.

Lanbidez eta izatez banaiz planifikatzaile, eta aspaldiko urteetan, beti ikasi dut helburu batetara iristeko bide bat baino gehiago aurreikusten. Hori bai, planifikazio gehienek huts egiten dute aurreikusten ez badute ez direla aterako aurreikuspenen arabera, alegia, behar dela beti, hirugarren aukera bat, egoera ezezagun bati erantzuten asmatzeko borondatea. Batzuk bulkada, intuizio, inspirazio, ondo gordetako sekreto deituko diote... baina hor datza sorkuntza: ez aurreikusi daitekeena planifikatzen baizik eta aurreikusi ezin zena gertatzen denean behar dena egiteko borondatea izaten.

Orduan esperientziek ez dute huts egiten. Huts egiten dute aurreikuspenek, eta esperientzia guztiak aberasgarriak dira, gauzak uste ez bezala ateratzen direnean ere.

Alde horretatik bizipen eragingarriak bezala huts egiteak integratu egiten dira sordanean. Izan ere, sortze-lana ez da ezerezetik ihalgai ohi. Beti besteekin sortzen da, nonbaitetik eratortzen da datorrena, zerbaitek eragiten dizu norantza batean. Beraz, inolaz, sortze-lana ez da jainkotiarra.

Idazketa-prozesuan batzuetan konszienteki imita dezakegu genero, joera edo egileren bat. Hein batean, "egunera" egotea, gizarteak eskatzen dituen gaiak hautatzea, gizartearen berriztat diren teknologien eraginpean aritzea (sms-ak orain, esate batera...) aparra eragiten dute edo artifiziozko suak edo txinpartak.

Ikasketa handiena besteek, hezkuntza sistemak erakutsi behar eta nahi zizun guztia ikasi ostean, ikasitakori buruzko galderak eragiten duten inarrosaldian gertatzen da, beraz.

Hau da. Esate batera, irakurri dut eskolako literatur-kritika erakusten zigutenean gomendatutako guztia, eta literatur –canonak nolakoak ziren adierazitako guztia...– eta horrek nolabait agerian uzten dituen galderari eraginez sortzen diren aukerak, galdera horiei jarraipena eginez egiten den bilaketatik sortzen dena da benetako eragina. Besteengandik datorrena eta besteengana iristeko xurgatzen dugun horretantxe datza.

#### **5.4. Belaunaldiez: galdera batzuei zehatzago erantzuten**

Beste batzuekin bizi naizen arren, talde-lanean ari naizela sinisten dudana arren, askatasun handia behar dut sortzeko eta izateko. Nire garaikide dira ez nirekin batera bizi direnak nirekin batera bizi direlako, nire garaian bizitzen eta nire garaia sortzen laguntzen didatenak baizik –daudela bizirik ala hilik–.

Alde horretatik ere uste dut sortze kontzeptua ez dela sor-lan artistikoari bakarrik dagokiona. Lotua dago transzendentziaren kontzeptu sozial eta gizatiarrarekin ere. Geure baitatik harantzago iristen gara geure seme-alaba bidez, geure hitzen bidez eta geure ekintzen bidez, eta beraz, gizartea ere sortzen dugu. Bagara geure garaia seme-alaba baina baita geure garaia sortzaile ere.

Geure gizarte eta garaian bizitzeko ere aurrekoen ondarea garrantzizkoa dira jaso duguna eta erakutsi nahi izan ez digutenaren zantzua.

Hala ere, ez nagokie oso adi joerei. Garaikidetzat dut garaian bizitzen eta garaia sortzen laguntzen didana. Garaikidetzat dut, ia beti, askatzaile sentitzen dudana.



Vigo, 1996. 1º Encontro das Poetas peninsulares e das Illas. Lehen Kongresua

Garaikidetzaren kontzeptua bezala oso eztabaidagarri iruditzen zait isladena. Artea ez da ezeren ispilu, artean bizitza islatzen eta sortzen den arren. Hitzaz ezinaren eta ahalaren lekukotasuna da: egin ezin denaren lekuko, egin nahi den horren izendatzaile, borondatearen eusle edota erakarle.

### 5.5. Geure hizkuntzaz

Paul Celanek Frantzia bizi arren, alemana erabili zuen sortzeko. Ez frantsesez ezin zuelako, baizik eta amaren hizkuntza alemana zuelako, eta bere iritzian, idazleak beti amaren hizkuntza erabili beharko lukeelako.

Francisco Jarautaren hitzalditik (Durango, 2010-5-6) Celanek idatzitako esaldi bat erreperatzen dut: “Sólo tengo una lengua y no es la mía”. Ez dakit euskaraz nola egingo nukeen itzulpena, baina uste dut gaztelaraz beste koska bat sortzen dela honela esanez gero: “Sólo tengo una lengua y no es mía”. Hizkuntza bakarra dut eta ez da nirea, edota agian, hizkuntza bakarra dut eta ez dut nirea, edota “elebaker izanik ere ez naiz hizkuntzaren jabe”.

Baina uste dut esaldi hori aukeratzean Jarautak bete zerbait ere adierazi nahi zuela, alegia, idazleak beretzen duen hizkuntza ere harrotu egiten dela beste hizkuntzetako tradizioekin.

Celan-ek esaten du (eta Auschwitz du gogoan) isiltasunetik GERTAERA atara behar duela poesiak. Ziurren horrek badu zerikusirik tradizio hebraikoan esanekin dagoen ikuspegiarekin, tradizio hebraikoan –katoliko-protestanteetan ez bezala, nik dakidanagatik– liburuan jaso ez zen zerbaiten –eta are, zerbait, asko, jaso ez izanaren– kontzientziari eta memoriari eutsi egin izanaren ikuspegiarekin.

Baina horrekin batera dio, gertaera isiltasunetik ateratzeko hizkuntza, behar bada, behar denean, behartu ere egin behar dela.

Eta horregatik, Celanen *izendatzea* prometeikoa da, Adanen errotikoa eta zizelkatzailea, oteitzarra ere bai, nolabait; baina ez nire ustean, tradizio emearen aldekoa. Izan ere, nahiz eta Paul Celanek ere amaren hizkuntza hautatu behar dela dioen, amaren hizkuntza hautatzean ez zuen amaren leinuko hizkuntza hautatu, amak hautatutako beste hizkuntza hura baizik, alemana.

Ez dut honekin Paul Celanen hizkuntza-hautua gaitzetsi nahi eta ez eta bere arazoibideetara sartu nahi ere. Baina bai nire hautuarekin alderatu.

### 5.6. Liburuaren tradiziotik ahozkoaren memoriara

Neuk oso aintzakotzat hartu izan dut judutarren tradizio laikoa, nahiz eta ez dudan nire burua ikerletzat eta, ez eta inolaz, oso adituztat ere. Nabarmenki harrapatu izan naute Franz Kafka, Maurice Blanchot, Hanna Arendt-ek edota Edmond Jabès-ek, Celanen lagunak. Esate batera, Arendt-ek gurea bezalako herri baten ikuspegitik dakarren hausnar-bide indartsuagatik.

Eta Edmond Jabès itzuli eta gogotik irakurria naiz. Jabès-ek idazteko darabilen frantsesari bere fonetika eta erroetatik dakarren tradizio judutarretik egiten dizkion galderek, erakutsi didate, hizkuntzaren senari heldu ezker zertarainoko bidea egin dezakeen idazle batek. Nabarmen deigarri suertatzen zait nola apur bat ara-



katu orduko –eta hori frantsesa bezain hizkuntza berri batean– azal-azalean gertzen diren geure azken mendeetako ideologiaren aurreko oinarritzko pentsamenduen azarnak.

Urteak dira ez dudala Jabèsengana eta isiltasunaren poetikarako hurbilketarik berri, baina ziur naiz berak utzitako eraginik gabe ezinezkoa izango zela *Izendaezinaz* liburua, zeinetan, gure oraingo hitzek erantzun gabe uzten dituzten galderentzako aurkitzen diren beste erantzun batzuk geure hizkuntzan, euskaran.

Geuk estatu gabeko herri gisara tradizio erlijioso bati eta nortasun “erlijioso” bati eutsi ez izanak eraman nau ni liburuetako tradizioetatik ahozko tradizioetara, behinola geure gizon handiek atsotitzak jasotzean (Oihenart), herri ondarea ez galtzen uztean (Barandiaran) egin zutenari beste norabide bat eman nahiz: ez atzerantzkoa (ez iragan aldaezinezko norabidea, alegia, bere horretan gorde eta esanahiz gabetzera irauraztearen aldekoa) baizik eta oinarrietarantzkoa.

Horregatik ere kokatu dut nire idazketa literatur-genero ez hegemonikoetan, eta literaturaren mugetan egiten dudana hautuan ez dut bakarrik liburuetako tradizioetara jotzen –orain– hizkuntzaren tradizioa baino: atsotizetara, emakundeetara, Secherezadetik Isak Dinesen bitarte dauden ipuin kontalariengana.

Uste dut Jarautaren interbentzioaren harira Mandelstamen ikuspegitik gertuago nagoela –Tsvietaieva, neurri batean zubi eta neurri batean eragile– hizkuntzari entzun eta adi egonik, liburuetara pasa ez den arren gorde dituen oinarritzko hautuekiko aditasuna bermatu alde. Eta hala hitzak hautatu ordez, nahiago dut oinarritzko hitzei nire baitan bere tokia ematea, eta maite dut geure oinarritzko fonetikako kosketan saiatzea (silaba trabatuak, txistukari antiz, bokal gutxi), eta menderik mende ukatu eta galarazi zaigun hitanoaren tolesturetan bestearen bila abitzea, irakurlearen bila, esate batera, edo adiskidearen bila, edo seme-alaben bila edo amodioaren bila edo Mariren bila.

Eta amatasunaz ari garenean eta sorkuntzaz, emetasun baten aldean aritzea egokitu zaigulakoan nago, har(ro)tasun baten aldean aritu ordez.

### **5.7. Idatzi ondorengoak: sariez, merkaturatzeaz eta zabalkundeaz: galdera batzuei zehatzago erantzuten**

Liburuak argitaratzea aski sari izan da niretzat, hein handi batean. Eta normalean, idazteaz batera lan egin dudanez –nahiz langabezian ere egokitu edo ikasle nintzela ere argitaratu– ez diot garrantzi handiegirik eman izan argitaratutako lanaren merkaturatzeari.

Jaso dut hainbat sari, tarteka neu aurkeztu naizelako, eta tarteka hala egokitu delako. Konkreturki, *Gabeziak*, nire lehen poema liburuari Españako Kritikak saria eman zion. Ez nekien esistitzen zenik ere. Eta diru-irabazbiderik ez bazen ere, halako oihartzuna emango zion nire lanari, orduan, Krutwiig-ek izugarrizko egurra eman baitzion. Neuk ere erantzun nuen *Eginen* (ez baitidaten argitaratu *Deian*) eta gero *Oh Euzkadi*-n eta horregatik ere izango zuen oihartzuna sari hark.

Ikasle nintzela, gero, R.M. Azkue saria jaso nuen *Hostoak* poema liburuarekin, eta Españaiko Kultur Ministerioaren sor-lanerako beka ere jaso nuen, *Izen gabe direnak* poema libururako.

Bigarren ere jaso nuen Españaiko Kritika saria, eta Españaiko Poesia Sari Nazionalerako ere hautagaia izan zen nire azken poema liburu *Glosak. Esana zetorrenaz*.

Hala ere, sari hauetaz gain, merkaturatzearen inguruan, inolaz, egileari bere lana ordaintzearen aldekoa naiz, eta polemikak polemika, egungo egile-eskubide sistema ez zait justua iruditzen, eta sariketen, beken eta enparauen inguruko polemiketan ere, funtsean, albora uzten da garrantzi handia duen gai bat: zergatik ez da kuantifikatzen sortze-lana, argi-endarra, telefonoa, mezularitza, idazkaritza, errotatiba, marketina... kuantifikatzen badira?

Maila konkretura jaitsita, euskal liburugintzaren esparruan, geure industriari izango du arazorik... baina sortzaileekiko ez dago gutxieneko errespeturik. Egun dagoen ordainbidea ez da justua: duintasunera ere ez da iristen. Hala ere, nire kasuan, ez dut burua alderdi komertzialean jarri eta ez dut sekula literatura bizibide izan.

Irudipena dut, Euskal Herrian garai batean azpiegitura profesionalik gabeko sor-lan esparruaren aldean, azpiegitura profesionalak bultzatu egin direla. Horrela herrietan antzematen den azpiegitura ugartasunak, erakusten du sorkuntzaren erakusbidearekiko interesa, merkatarikaren interesa eta baita Euskal Herrian eraikitze-ko egon den gogo, behar eta interesaren tamaina ere.

Badira azpiegiturak herri guztietan, baina azpiegitura horiek zertarako eta nola erabili... hortxe dago egin ohi ez den galdera. Hartaraino, non sarri ematen duen eraikuntzen erakusbide gisara, eta herrietan zegoen aberastasun arkitektonikoa berreskuratzeko aitzikiarekin batera berregin direla espazio horiek.

Eta horrenbeste planifikazio administratibo eta urbanistikoa izanagatik azpiegitura horien aurretik ez dut nabarmendu, orain artekoan, muintegiak sortzeko aurreikuspenik. Beraz, batez ere, sortzaileentzako ez dago baliabiderik azpiegitura urbanistikoa eta kudeaketazkoak osarutako sare horretan.

Idazten eta sortzen eten gutxiago izan badut ere, ez dut nire burua argitaratzera estutu. Ez dut uste edozein momentutan nire burua argitaratzeko prest dagoenik. Aurrena ondo pentsatu ostean ekiten diot liburua argitaletxera eramateari. Alde horretatik, esan behar dut, idazketa ez dudala sekula modu profesionalean planteatu.

Eredu orfikoago, ludikoago edo askegoarekin jokatu izan dut argitaratze-kontuetan. Argitaratzeari buruz dudak ezagutza ere, alde horretatik, oso esparru konkretuari dagokio, zehaztapen txikiak sartu ezean. Gaztetako harremanek ekarri ninduten Pamielara, baina baita, konszienteki, poesia argitaratzeak bezala, literatura munduaren erdigune eta zibilizazio sentitzen ez zen argitaletxe batekin lan egitearen aukerak ere, horrekin noski, beste inolako aukerarik gutxietsi gabe.

Beste alde batetik, oso tarteka argitaratzen dut, eta, bai, argitaratzea erabakitzen dudanean, beste indar batzuek baliatzen naiz. Ez naiz sentitzen merkaturako lanean, poesia irakurri nahi dutenekin harremanetan saiatzen baizik.

Oso aspaldi batean hasi nintzen poemak jendaurrean aurkezten, nahiz hori ere, aldika egin dudan. Esate batea, Amaia Zubiriaren diska bat eta nire poema liburua batera aurkeztu genuen Beasainen 1996 inguruan. Ondoren, lagun ditudan *Ur da Lur* taldekoekin ere egin genuen hamaika saio, nire testuak irakurtzeko. Eta harrez gero, sarri irakurri izan ditut nire poemak beste musikari batzuekin, eta azken urteetan Idazle Eskolako hainbat kiderekin batera. Eta oso esperientzia emankorra izan da beti. Ez dakit, hala ere horrek nire lanaren hedadura zer nolako ondoriorik izango zuen.

Azken libururako, *Eta orain badakit*, Aitor Furundak, Iñaki Telleriak eta Garikoitz Mendizabalekin egindako sorlana ere goizgarri handia izan da. Musikari buruzko hausnarketa suspergarria egiten zait.

### **5.8. Artearen zeregina ala izaera: galdera batzuei zehatzago erantzunez**

Hainbatek aldarrikatu ohi du arte tradizionalaren desagerketa. Neuk tradizional eta modernoaren arteko aldea ez dut horren garbi ikusten, baina ezberdintasun hori onartuta ere, ez dakit benetan kategoria estetiko tradizionalak amaierara iritsi diren, ez eta zeren amaierara iritsi diren, besteak beste, amaieran ez dagoelako ezer, artea ere ez, fedea ere ez, Amaiera da amaiera, amaierak ez du ezer bere ostean. Artea, berriz, izatekotan, beti hasiera da, aukera bat edo.


Areago, arte beraren desagerketa ere funtsa daiteke, baldin eta egia bada arte-lana zer den eta zer ez den ezin direla berezi. Sarri aldarrikapen hutsaltzat izan ditut, eta jendearen arreta deitzeko eginak direla iritzi ere izan diot, batez ere, ez dudalako antzematen eztabaida horietan, artearen premiarik, baizik eta arte gisara kontsumi daitekeen merkataritza produktua definitzeko premia.

Nire iritzian, berriz, arteak geure gizartean, besteetan eta aurrekoetan bezala, badu bere zeregina. Gaurko gizarteak sakratuaren kontzeptua alboratu egin du. Ideologiak hartu zuten erlijioaren tokia eta orain horrek ere huts egin ondoren, berehalakotasunera emanegi dago gizartea. Berehalako ezezik bapateko behar du denak.

Horren ondoan, arteak badu transzendentziarekin zerikusirik. Arteak, uste dudanez, edertasuna eta oreka puntua bilatzeko aukera eskaini dezake. Ez dakit gizarteari bere osotasunean... baina bai behintzat gizabanakoari bere osotasunean, alegia, bere bakantasun eta talde-izapidetzan.

Edonola nik irizten diodanagatik, sor-lanak berak azaldu behar du bere burua ondo, irakurlea barneratua behar du –nahiz horrek ez duen esan nahi edozein izan daitekeena edozeren irakurle–.

Horrek ez du esan nahi egile batek egiten duen guztia arte denik, ez eta beti artea sortzeko konfidantza duenik bere baitan. Neuk, luzez pentsatu dut, behar bada, ez nuela poesia-liburu gehiago argitaratuko, batez ere, bizitzan oso nekatua sentitu izan naizen tarte batzuetan. Aldi berean, idazten dut eta, hala ere, idazten dudan guztia ez da artea. Neure izatearen espresiotik besteen izatera iritsi nahi izaten dut... Eta noski badela inspirazioa. Geure hizkuntza bera izan daiteke inspirazio-iturri, edota beste batzuen testu eta idatzietatik edota irudi eta musiketatik ere abiatu ohi da idazlea.



Tere Irastortza Galeuscako aurkezpen batean

Denean dago nondik abiatua. Batez ere, behar dena, aditasuna da, hunki-beratasun puntu batekin batera: egoskor gaudenean ez da inspirazioarentzako tokirik egiten.

Baina bizitzak, laga ezker, berak dakar izateko gogo. Bizitzeko gogorik ezean uste dut ez dela sortzeko gogorik izango, eta amaiera ezereen gogorik ez izatea dela, ez eta amaitzeko gogo ere. Beraz... gogo da sormenaren hazi eta pizgarria. Eta kopiaketa da iraupenerako kodea. Bizitza ez da aski sortzeko. Izateko gogo ezinbestekoa da, berriz, sortzeko.

Gogo beretsua behar du norberak arteaz jabetzeko. Eta arteaz jabetzeko ere bada geure mundualdiaren berehalakotasunak atzean uzten duen aditasun modu baten premia. Neuk, galdetzen didatenean, zer eskatuko niokeen nire irakurle bati, denbora eta arreta eskatuko nioke, eta again konfiantza. Ez uko egiteko bere sentipenei, bere emozioei, bere galderei, bere edertasun egarriari. Neurri batean, fidatzeko nire hitzez, irakurlearentzat idatzi ditudala. Neure aldetik, irakurlearen garaikide izatera iritsi nahi dudala, xamur xamur ernamuindu daitezkeela bere baitan beste batek idatzitako hitzak.

## **5.9. Koadro bati begira**

Koadroek beraiek erakutsi ohi dute nora begiratu: dela argitasun puntu bat, dela pertsonai baten begirada bat... Eta ia beti erdigunera doa gure begirada. Gero, koadroa ikusi eta begira jarraitzeko eskatzen digunean, erdigune horri begira dauden koadroko elementuei erreparatzen diegu, eta azkenik, egonean eta begira geratu ostean, koadroa gure baitan dagoenean, batzuetan, gehiago jakin nahi dugu eta beste batzuk nola ikusi duten, zer dioten galdetzen diogu geure buruari.

Sandro Botticelliren *La nascita de Venere*-rekin halako zerbait gertatu zait, nahiz, bizitzan hainbatetan bezala, ez den prozesu lineala izan, eta ez den dena hain jarraian gertatu. Ziurrenera, ikusi, eta zerbaitegatik zoragarri iruditu, aurreneko UBI-n ikusiko nuen. Gerora, urte askoan, ez naiz gehiegi akordatu koadro horretaz.

Hurrengo batean, ez dut data zehazterik baina egoera bai, Murumendira begira egon ostean eta Mariri buruz pentsatu ostean, Olaberriko gaintxo batean etorri zitzaidan burura, argi, irudi hori. Eta gainera koadro haundi bat bezala ikusi nuen, bere egiazko neurrian sekula ikusi ez dudana arren.

Gogoan dut goiz eder hura. Abiatu nintzen etxetik pasieran. 2007ko udaberriko egunen bat. Irtsi nintzen bada baso une batera, Olaberriko muino hartan, non munduaren erdigunean zaudela senti daitekeen: buelta osoa mendiz ingurata: Aizkorri, Murumendi eta Usurbe, Nañarri-Alotzak eta Gaztelu eta Ataungo mendiak.

Jarri nintzen pikotxetan baso ertzean, begiak itxita eta oinetatik sudur-minztetara bitarteko ikara bat sentitu nuen barru barrutik. Begiak ireki eta nire barruan isuria sentitzen nuen eta oinetan lurra eta airezkoa nintzen eta eguzkiak ez ninduen erretzen. Sentitu naiz horrela beste batzuetan ere, harrez gero. Bereziki

gogoratzen dut esate batera, Urederrekoa, eta izen hori entzute hutsarekin berri-  
tzen zait halako indar bat. Orduantxe etorri zitzaidan burura Venusen jaiokera,  
Botticellirena, nahiz eta Venus hura itsasoan jai.

Koadro hori internetetik jaisi eta Bergarako Idazle Eskolako apaltegian jarria  
dugu. Eta bertan Karmele Igartuak egindako Marina Tsvietaievaren itzulpenak  
elkarrekin birpasatzean oso maiz akordatu izan gara irudi honetaz, eta orain, ohar  
hauekin ari naizela, adiskide min eta idazle Karmele zendu berritan, burutik ken-  
du ezinda bezala nabil, kasualitate batek ekarri baitzuen berriro beste erreproduk-  
zio bat nire eskuetara, alabak erositako aldizkari batean, bere heriotzaren bihara-  
munean.

Beti beste zerbait esaten zidala edota beste zerbait irakur nezakeelakoan  
ekin diot egunotan koadro horren historia eta koadro horri buruzko interpretazioak  
arakatzeari. Eta horietako batzuetatik gertuago edo urrunago uste dut badela libu-  
ruak irakurtzeko bezala, irudiak ulertzeko eta biziaz aritzeko beste modu bat eta  
koadroak berak erakusten digula, eta Venus honetaz mintzatuz mintza gaitzkee-  
la, berriro, sorkuntzaz eta amatasunaz eta jaiokera eta jakintzaz.

Botticelliren lan honetaz irakurri ditudan interpretazio gehienetan, aurre-  
na, Venus deskribatzen da eta gero, mendebaldeko liburuen hurrenkeran ezke-  
rretik eskubira deskribatzen da koadroa eta ondorenean, kasu honetan, behetik  
gora. Ezkerretik begiratuta, zefiroek arnasa ematen dioten bitartean sortzen da  
Venus, eta aldi berean Orduak, beste aldean, zabaltzen duen oihalak puztu egi-  
ten dira haizetan. Ezkerreko zefiroak har eta eme dira, haize indartsua eta leu-  
na, batera batera. Orduak, bera ere jantzirik, oihala eskaintzen dio Venusi... eta  
kritikari gehienek udaberrikotzat dute Ordua, loreak dituen oihala eskaintzen  
duelako, baina ez ote liteke esan Orduak bi aro bereizten dituela bere oihalean:  
udaberria eta udazkena, oihala, alde batean gorriska baita, udazkeneko hosto-  
ak bezala.

Baina adizue... Venus, koadroaren erdian, niri begira dago, koadrotik kan-  
pora dagoenari, bera ere, koadroz kanpo baitago, besteen begiradetatik urrun.  
Sortu ere behetik gora sortzen da Venus hau, haurgintza ororen legeen aurka.  
Zutik. Ez baita haurra jaiokera dena, heldua baita: emazte heldua dator Venus.

Esan liteke, nolabait, jainko eta heroe gehienena bezala, jaiotze hau natu-  
raz bestelakoa dela. Agian, baina, emazte heldu baten jaiotza den neurrian, bere  
baitatik sortutako gizaki berri bat irudikatzen du Botticelliren Venus honek. Erljio  
batzuk, kristautasunak esate batera, bataiatzearekin irudikatzen duten jaiotza  
gisara. Baina jaiotze hau ez da ur-berrietara eta jakintza berrietara egindako mur-  
giltze baten ondorio. Jaiotze hau norberak bere baitan bizi ostean egiten duen sor-  
ketari dagokio.

Horregatik edo maskor batetik sortzen da emazte hau, emakumeen ugal  
organoetatik, nahiz eta mitologiak, beti kontrara dion, Uranori erauzitako eta itsa-  
sora botatutako barrabiletatik sortua dela. Baina barrenagotik dator, maskor batetik  
eta itsasoko uhinak ere v baten antza dute, zabaltzen den maskorrarena, familia  
izateko irekitzen diren emakumeen izterrena, kontrakzioetan askatzen diren emaz-  
teen, bizipozera jaiotzen garen emazteena.



Karmele Igartuaren *Hitzak orbainetan* liburuko aurkezpena

Venus bere garaia birsortzen da, heltzen da, iristen da, eta bere begiradarekin ikuslearen begirada harrapatu nahi du. Bere begiradarekin irten bezala egiten da koadrotik. Bere garaia ez da iada iragan garaietatik zuzenean datorrena, eratorria, ez da izandakoaren ondorio huts. Bere garaia ez da aurreikusten eta planifika zitekeen etorkizuna. Ez da lerro zuzen bateko puntua. Etena da: erabakia, euskarazko erabaki zentzuaren adiera oinarrizkoenean: era-baki “ebaki arazia” baita edota “ebaki arazlea”. Venusen garaia, beraz, ez da iragana eta ez da etorkizuna, bere garaia da gure garaia: begira harrapatzen duenarena, beste batekin sortzen den garaia.

Venusen garaiak, artearenak, espero du beste batzuk, noizbait idatzita utzi dutena irakur dezagun, geure garaiari; beste batzuk noizbait margotuta edota kon-

posatuta utzi dutena, guk entzun edota ikus dezagun. Izan ere, hitz eta irudi eta soinu horiek, nork harrapatu geratzen dira, nork jaso emanak izan baitira.

Ez dakit oso ondo zergatik ileak estaltzen dizkion bular alde eta alu alde... Baina bere burua estali gabe dago, emakume librea da. Ez, horregatik, besteentzat libre dagoen emakumea, baizik eta agian bere askatasuna sentitzen duelako azaltzea eta gordetzea aukera dezakeen emakumea. Ez dakit zertaraino esan daitekeen estaltzen dituela, ala hobeto esango genukeen eskuak bertan pausatu egiten dituela. Izan ere, ematen du, gorde, gordetzen duena gordetzen duela, ez duela ezer kenduko dioten beldurrez gordetzen, baizik eta oso oso bere duen zerbaiten estimazioz pausatzen dituela bertan eskuak. Zerbaitetaz jabetu izanak sortzen duen jakintzari dagokio iaiotasuna, jaiotze hori, alegia.

Venusen jaiocera hau nire iritzian, beraz, barrutik kanpora eta behetik gora irakurri beharrekoa da, sentitu beharrekoa. Venusen jaiocera hau da artea, eta literatura, eta ezagueraren eta intuizioaren jaiocera, ezagutzaren beste zentzua, zeinetan ikastea den sentitzea, senetik ezagutzea, senari kasu egitea. Iraganeko haizeak jarraitzen du beti gureganaino iristen: erakutsi digutena gure aurreneko sena galarazi arte batzuetan, gure aurreiritzi bidez geu itsutu arte. Hala ere, iraganeko haizeak batzuetan hain bortizki jotzen gaitu non biluztu eta ezer gabe ere utz gaitzakeen. Ordua dago, orduan, zain... ez hozteko, babesteko, beldurra uxatzeko, eta orduan, oraina bihurtzen da ez lehenaren eta geroaren artean kokatutako aldi bat, baizik eta beti guztian beste batekin bizi dugun aldi, tarte, aukera, giro.

Irakaskuntzan badira ikasketa-komunitateak etab. Irakaslearen funtzioa, aitzindariaren, maisuaren, rabinoaren, emaginaren egitekoa garrantzizkoa da beti... baina sortu, norbere baitatik sortzen da jakinduria. Karmele Igartuak argitartu gabeko eta amaitu gabeko saio batean ondo esaten zuen bezala ez baikaituzte galderek bereizten, erantzunek baizik.